

Ordenantza onartu ondoren iturriak egokitzen lehen auzolana eginen dute bakaikuarrek / 7

Alokairuzko etxebizitzak egiteko hitzarmenari oniritzia eman dio Altsasuko Udalak / 9

Industria lurzorua garazteko 27,83 milioi euro bideratuko ditu gobernauak / 5

Antton Zelaiak eta Mikel Astizek erronka solidarioa jarri dute martxan Bicicletas Sin Fronterasen alde / 17

DNA programaren barruan 'Gorputzaren soinuak' dantza tailerra izanen da Etxarri Aranatzen / 22



22. Korrika, azken urteetako bereziena, bitan pasatu da Sakanaetik, irudi ikusgarriak utziz / 10-15



Txapeldunei harrera

Martijak eta Altunak txapelketako biharamuna Etxeberrin pasa zuten / 18-19

"Ez zaio nahikoa garrantzia ematen sexu hezkuntzari"

ITXASO TORREGROSA ARTEAGA SEXU HEZITZAILEA

Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean hilabeteko azken ostiralean sexu aholkularitza eskaintzen du. Lakuntzako eta Etxarriko eskoletan eta bi ikastoletan ere aritzen da

Eneida C. M. / Alfredo A. I. SAKANA
Bikote bat, jantzita, besarkatuta, musukatzen. 11 urteko marrazkian bikote ziren bi irakasleren izenak ageri ziren. Irudia ikasgelan ikusgai jarri zen, beste hainbat marrazkirekin batera. Ondoren bakarren batek marrazkiko gizona zekoari zakila margotu zion. Etxarri Aranazko eskola publikoko irudi hark 1982ko martxoan nahikoa zalaparta sortu zuen. Hezkuntza Ministerioi Nafarroako delegatuak irakasleen kontrako espedienteak zabaldu zituen. Egunetara 1.400 irakaslek elkartasuna adierazteko greba egin zuten. Gertaera aitzakiatzat hartuta, sexologoak gaur egun nerabe edo gaztetxoekin sexu heziketa nola lantzen den azaldu du.

40 urteren ondoren, zer iradokitzen dizu marrazkiak eta gertatu zenak?

Gauza asko. Bat asko falta bada ere, zorionez gauza askotan aurreratu dugula. Burura etorri zaizkidan besteak dira: zalaparta sortu zuten horiek, zer helburekin sortu zuten zalaparta? Ez da kasualitatea. Hor daude beldurrak, ideologiak, baina

ziurrenik beste asmo asko egonen ziren atzean. Bi, eskerrak erantzun horri. Eskerrak jende gehienak zentzua daukan eta gauzak kokatzeko eta halako erasoiekin aurre egiteko gai den. Eta ea norbaitek pentsatu zuen horrek guztiak zer ondorio zeuzkan irakasle horiengan. Baina, batez ere, ume horren eta bere inguruko ume guztiengan. Zein mezu bidali zitzaizkien txikiei? Pentsa, ume batendako marrazki inozo batzena, zer ondorio izanen zituen bere bizipenean, bere iruditegian... Nire ustez, erdigunean beti txikien beharrak jarri behar dira. Haiek ongi sentitu daitezela, aske. Orduan heldu batzuei eraso egin zieten, baina kontzienteki eta zeharka oso eraso larria txiki haien kontra. Inori onurarik egin ez zion zentzugabekeria handia izan zen.

Zergatik da garrantzitsua ikastetxeetan sexu heziketa jasotzea?

Garrantzitsua baino, ezinbestekoa da. Dagoena ez da nahikoa. Sexu hezkuntza oso modu itxian, sinplean, ulertzen badugu... Askotan esaten digute: "bi ordurekin nahikoa da". Helburuaren

arabera da hori. Norbait gai izanen litzateke bizi guztiko matematikak bi ordutan lantzeko? Zaila da. Akademikoa ez den horri guztiari zein garrantzia gutxi ematen zaion! Ni egunero hamarnaka gazterekin egoten naiz eta askotan helarazten didate: "irakasten dizkigute, formulak, datuak... Eta ez digute irakasten gure artean harremanak izaten, ongi sentitzen, gure buruak maitatzen, besteekin harremanak izateko gakoak izaten, gure gorputzak ezagutzea, gure izateko modua, gure adierazteko modua, gure emozioak..." Bizitzan ezinbestekoak diren gauza asko dira. Gustatu edo ez, denok dugu sexualitatea, jaiotzen garenetik hiltzen garenera arte. Zeharkatzen gaituen zerbait da. Eten-gabe gaude gure buruarekin elkarbizitzen eta besteekin modu askotara harremanak izaten: erotikoan, egunerokoan... Zorritzarrez, oraindik ez zaio nahikoa garrantzirik ematen. Azkenean, horretaz ari gara: norbera bere burua ezagutzeaz, maitatzeaz, ongi sentitzeaz, aske

sentitzeaz, gai izateaz adierazteko bere beharrak, bere nahiak, ongi pasatzeko, disfrutatze... Apika handinahia dirudi, baina horretan inbertitzea da jende zoriontsua izatea. Adin guztietan da ezinbestekoa, baina, batez ere, nerabezeroan. Zenbat eta lehenago hasi, hobe. Askotan esaten didate: "ziurgabetasunez, ezjakintasunez josita gaude. Falta zaigu informazio pila. Honi buruz hitz egitea behar dugu". Horretan hutsune handia dago. Edozein ongi sentitzen den momentuan, bere burua ezagutzen badu, egonkortuta badago, ahaldunduta badago... arlo guztietan gehiago ikasiko du, harreman hobeak izanen ditu... Azkenean, gainontzeko esparru guztietan eragiten du ere.

Beraz, sexu heziketak irakasgai ardatza izan beharko luke?

Dudarik gabe. Askotan deitzen gaituzte suak itzaltzeko, nerabezeroan, arriskuak daudenean. Beti beldurraren diskurtso horretatik. Sexologok beti esan dugu derrigorrezko hezkuntzako etapa guztietan astero eskaintzen den zerbait izan beharko lukeela. Ez dakit zenbat denbora, baina astero. Lehenago hasita, gehiago sakondu.

Hori jasotzen duzue ikasleengandik?

Balorazioetan beti pila eskertzen dute. Eta gehienetan kezkatzen dira ez dela nahikoa. Beti: "geratu atsedenaldian, geratu..." Konponbidea ez da hori. Lan polita daukat. Baina pixka bat

"SEXU HEZKUNTZAREN HELBURU NAGUSIA DA NORBERA EZAGUTZEA"

"DERRIGORREZKO HEZKUNTZAKO ETAPETAN ASTERO ESKAINI BEHARKO LITZATEKE"

frustragarria ere bada, nahikoa ez den sentsazio horrekin bizi baikara.

Nafarroako Gobernuak antolatzen dituen saioekin ikastetxe guztietan aritzen zarete?

Tamalez, ikastetxe gehienetan oraindik ez da egiten. Hori da kezkgarriena. Nik dakidala, gaur egun, ikastetxe bakoitzaren borondatearen arabera da sexu heziketa eskaintzea; ikastetxearena, guraso elkartearena, zuzendaritzarena. Nolabait, modu pribatuan kudeatzen den zerbait da. Oraindik ez da publikoki eskaintzen. Esaterako, ikastetxeetan sexologoaren figura ez da oraindik existitzen, ezta osasun etxeetan ere. Modu boluntarioan izaten da, norbaitek beharra ikusten duenean kontratatzen duen zerbait da. Ordaintzeko prest dagoenaren esku dagoen zerbait da gaur egun sexu hezkuntza. Ez da gobernutik bermatzen den zerbait. Skolae programa garatzen hasi da. Dudarik gabe, aurrerapauso bat da. Saiatzen da ikasgai ardatz bihurtzen, urtero egiten... Baina ez dakit nahikoa ote den. Ezin da bakarrik irakasleen esku utzi horrelako zerbait. Irakasleek ardura garrantzitsu bat dute. Baina, propio, sexu hezkuntza inardtu behar da.

Zuen lanak zein helburu dauka? Nolakoak dira sexu hezkuntzako saioak?

Sexu hezkuntzaren helburu nagusia da norbera bere burua eta bere gorputza ezagutzea, hori maitatzea, onartzea aniztasunetik. Eta gai izatea besteekin modu osasuntsuan eta zoriontsuan, modu askean, harremanak izateko. Hori horrela oso potoloa da. Adinaren arabera edukiak aldatzen doaz. Orduan arabera edukiak moldatzen goaz. Ni klasean sartzen bi galdera egiten saiatzen naiz: zer dakiten eta zer jakin nahi duten. Jakina, haien jakin minari, beharrei, kezkei ere erantzun. Hortik harago, sexualitatearen iruditegia zabaltea, oso irudi itxia dugulako: oso heterossexuala, oso monoparentala, koitozentrista... Ideia hori zabaltzea. Txikitatik aniz-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Itxaso Torregrosa Arteaga, sexu hezitzailea. GAUR

tasuna lantzea: gorputzetan, bikote eredueta, familia eredueta, neska eta mutil izateko moduetan eta abarretan. Beraiek kutxetan sartzea baino, asmoa da kutxak handitzea denak kabitu daitezten. Denak diren bezalakoak maitatuak izan daitezten. Adinaren arabera, hor lantzen dugu gehiago aniztasuna, nerabezaroan gehiago aldaketak, beste adin tartean gehiago ligo-teoa eta harremanak, harremanak izateko moduak, bikoteak, jelsia, desioak, aniztasunari lotutakoak, LGTBI+ siglen inguruan dagoen guztia, emozioak, gorputza... Mila gauza landu daitezke, azken finean, beraien buruak ezagutzen doazen heinean, besteekin harremanetan sartzen diren heinean, gai izan daitezela detektatzeko zer duten gustuko eta zer ez; nola nahi duten eta nola ez; nola adierazi nahi duten hori; mugak nola jarri; nola eskatu; nola komunikatu... Harremanen bueltan mila gauza.

Egunerokoan sortzen diren hainbat kezka lantzea da, ez?

Dituzten zalantzak erantzuten bakarrik egon ninteke ditugun saio guztietan. Baina sexologoek hortik harago joateko beharra ere ikusten dugu. Sexu hezkuntza ez da bakarrik haien interes puntualak. Askoz gehiago da eta sakontzeko denbora behar da. Gainera, gauzak modu parte hartzailean egin nahi badituzu,

bizipenetatik, haiek haien gauzak kontatzen... Horrek ere denbora behar du. Askotan korrika eta presaka gabiltza, ezin nahikoa entzun, ezin nahikoa hitz egin... Askotan denbora faltagatik.

Klasean saioak emateaz aparte, familiarekin ere biltzen zarete, ezta?

Bai, klasean sortu diren zalantza horiek familiarekin jakin ditzaten. Baina ez kasu guztietan. Berritoren ere, nahi dutenekin. Baina, ahal den neurrian, oso interesgarria da komunikazioa izan dadila bai irakasleekin bai familiarekin. Sexu hezkuntza ematen dugunok ez gara haien eredu nagusia. Gu haiekin tarte bat egoten gara. Saiatzen gara jarreraz hitz egiten. Baloreetan eta moralean ez gara sartzen. Hori bakoitzak ikusiko du etxean zer egin behar duen. Saiatzen gara gauza batzuk kokatzen, baina haiekin egunerokoan daudenak irakasleak eta familiarekin dira. Eta denon arteko elkarlan hori ezinbestekoa da. Saiatu, ahal den neurrian, diskurtsoak nolabait bateratzen, azaltzen, denek jakitea zer egiten den... Tailer horietan saiitzen gara ere klabeak ematen: etxean nola landu litekeen, nola bideratu, haiengana nola hurbildu, zer informazio positiboagoa eskaini... Gako batzuk eman denok guztiari buruz ez dakigulako. Askotan familia eta irakasle askok egin nahi dute eta ez dakite nola. Saiatzen gara gako batzuk

ematen beldur horiek galtzeko, eta ematen duena baino sinpleagoa dela azaltzeko. Askotan sentitzairekin hor gaudela, behar dutenerako, hori asko da. Familien jarrera, normalean, oso ona da. Interes handia egoten da. Aberasgarriak izaten dira halako espazioak.

Ikastetxeetako saioetatik Intxos-tiapunta gazte gunera alde dago?

Desberdintasun handia dago. Hilabeteko azken ostiralean joaten naiz, 17:30etik 20:30era. Altsasukoa oso proiektu polita da hileru hiru ordutxoko espazio bat ematen zaiolako. Bereziki gazteak, baina edonork aukera dauka hara joateko: kezka bat duela, behar bat duela, zerbaitekin laguntza behar duela... Udal batek eskaintzea sexologo baten zerbitzu bat edonorendako niretako oso aberasgarria da.

Eta ez da klasean bezala, zu derrigorrez joaten zarela; norberak erabakitzen du joatea. Normalean talde txikiagoetan joaten dira. Beraiek erabakitzen dute norekin joaten diren, zertara. Konfiantza giroa beste bat da. Beraientzako zaude. Batzuekin bakarrik, besteekin taldeka, koa-drilan... Nahi bezala, haiendako espazio erosoago batean, ez hain arautua, presa gutxiagorekin, jende gutxiagorekin denbora gehiago egoteko aukera... Beste girotxo bat sortzen da. Konfiantza puntu bat sortu da gazte koa-

drila batzuekin eta polita da ikustea tarteka etortzen direla: kezka hau dugu; behar hau sentitzen dugu; honetan lagundu; honi buruz hitz egin...

Urteen perspektibekin, gaur egungo gazte-nerabeak nola deskribatuko zenituzke?

Esan dut hobetu garela. Baina, tamalez, gaur egun halako zerbaite gertatuko balitz, zalantza dauzkat askok ahotsa asko altxatuko luketen. Orain ikusten dut gaia mahai gainean dagoela. Orokorrean, gazteak izaten dira oso jatorrak, interes handikoak eta gauzak beste modu batean egin nahi dituzte. Behintzat, asmo hori egon badago. Gauza batzuei buruz hitz egiten dute. Egia da garai bakoitzean beraien arazoak dituztela. Orain dute erakustearen presio hori, etengabe beraien burua saldu behar hori... Askotan oso tristea, baina urtetik urtera zalantzak, beldurrak, autoestimua arazoak nahikoa antzekoak izaten dira. Baina elementu berriak sartu behar dira: sare sozialak, ligatzeko modu berriak... Arreta jarri behar zaizkien elementuak dira, beraien ere eragina duelako. Ikusten da ere etxeetan gero eta gehiago hitz egiten saiatzen dela. Azkenean, bikote ereduak, familia ereduak... zorionez, gero eta hurbilago dituzte beste eredu batzuk. Berdinak jarraitzen du hegemoniko izaten. Baina, politiki-poliki, gai batzuekin nabaritzen da zenbat eta txikiagoetik landu hobea. Askoz errazagoa da umetxo bati azaltzea zer den txiki transsexual bat heldu bati baino. Zenbat eta txikiago, motxila are eta txikiagoa da. Eta, hortaz, aniztasuna ulertzea askoz errazagoa da. Niri galdetzen didate: zer da trans? Eta zer da... Hainbat errealitate ikustarazteko sortzen diren hitz berriak. Esaterako, homo-

fobiak eta transfobiak existitzen jarraitzen du, baina aniztasunaren, familia ereduaren aurrean beste jarrera bat dute. Nabari da.

Familiak eta gazteek ezberdin bizi dituzte, sare sozialena, zer?

Sare sozialekin beldur handia dago, bai pornografiarekin, gauza askorekin. Azkenean, askoz informazio gehiago dute eskuragarri. Asko dakite, baina askotan gaizki, informazio iturriak askotan ez dira egokienak. Garrantzitsua da gu adi egotea, ez hainbeste kontroletik, baizik eta kezkatik, eskaintzatik, laguntzeko gaudela: gazteek ikus dezatela inporta zaigula pasatzen zaiena; guregana jo dezaketela zalantzaren bat badute. Esaterako, pornografia ikusten dutela. Arazoa da informazio gehiago dutela? Edo ez direla filtratzeko gai? Arazoa ez da hainbeste pornografiak, ez da hainbeste sare sozialak, baizik eta ez dugula nahikoa denbora inbertitzen haiekin horietaz hitz egiten, klabeak ematen... Zenbat eta sexu hezkuntza gehiago orduan eta prebentzio gehiago. Hori hala da. Normalean, bere burua maitate duen norbait zainduko da. Informazio gehiago duen norbaitek ez du edozer sinistuko. Askotan horrek dituzten hutsuneak tapatzen ditu. Gauza horietaz hitz egiten gehiago inbertituko bagenu, ez litzateke hain kezkarria izaneren gerora zer ikusten duten guretik kanpo.

Beraz, pertsona kritiko gisa hezi.

Hori da, klabeak ematea. Kontrolatu dezakegu. Baina, zorionez edo tamalez, telefono mugikorra ez daukanari beste batek kontatuko dio. Gustatu edo ez, informazio hori jasoko dute noizbait. Kontua da prest egon daitezela, ziur, harremanak osasuntsu, familiarekin konfiantza, haien buruak maitatuta eta, batez ere, beste diskurtso bat jasota. Nik esaten diet: ez jarri La que se avecina etxean. Eta jarri behar baduzue, ondoan egon azaltzeko zer ari diren ikusten, zer den umorea, zer den... Azkenean, sexu hezkuntza ematea da bai guk, bai etxean. Tresnak ematea. **Sakanan egon zarete?**

Sexu hezkuntza ematen jende gehiago dabil. Ni, esaterako, Lakuntzako eta Etxarriko eskola publikoetan eta bi ikastoletan egoten naiz, eta beti oso gustura. Dagoeneko saio gehienak egin ditugu.

"GUSTATU EDO EZ, DENOK DUGU SEXUALITATEA, JAIOTZETIK HIL ARTE"

"ZENBAT ETA SEXU HEZKUNTZA GEHIAGO ORDUAN ETA PREBENTZIO GEHIAGO"



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

3.258 kilometro

34 ordu autoz, 3.258 kilometro. Hori da, Interneten arabera, Kiev eta Altsasu banatzen dituen distantzia. Kilometro horiek egin behar izan dituzte Ukrainatik datozen 61 pertsonak, orain Altsasuko aterpetxean daudenak. 17 aldiz handiago den herrialde batetik datozenak, gerratik ihesi.

Ukrainatik etorritako Sakanako bizilagun berri batzuek ukraineraz hitz egiten dute, baita errusieraz ere. Ukrainera eta errusiera ekialdeko eslaviar hizkuntzen talde berean daude, alfabeto komun bat eta antzeko gramatika partekatzen dutelako. Hala ere, herrialde bakoitzaren historiak bi hizkuntzak banatu ditu. XVIII. mendean, ukrainar literatura hizkuntza bat sortzen hasi zen, baita errusiar hizkuntza bat ere, ondorioz bide desberdinetatik garatuz joan ziren. Azken

UKRAINARRAK ELEMENTU KOMUN GEHIAGO DITU BIELORRUSIARRAREKIN, TXEKIARRAREKIN EDO POLONIARRAREKIN ERRUSIARRAREKIN BAINO

aldiko ikerketek erakusten dute ukrainarrak elementu komun gehiago dituela bielorrusiarrarekin, txekiarrarekin edo poloniarrarekin errusiarrarekin baino.

Antzekotasunen ondorioz, Ukrainako biztanle askok ukraineraz zein errusieraz hitz egiten zuten. "Hitz egiten zuten" esaten dugu otsailaren 24aren ondoren auzo harremanak hautsi

egin direlako. 2001eko inkesta batean, Kieveko biztanleen %32k esan zuten errusieraz eta ukraineraz hitz egiten zuela. Ez dakigu nola eta noiz amaituko den gerra hau, baina badakigu bi hizkuntza bananduta biziko direla hemendik aurrera. Eta pena da. Bi hizkuntzetan "жаль" lastima edo pena esan nahi du, baina errusieraz damua edo errukia adierazteko erabiltzen da, eta ukraineraz berriz, tristura, samintasuna eta mina.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Gizon eta mutiko: feminismoan lagun, ez protagonista!

SAKANAKO BERTINTASUN ZERBITZUA

Pandemia apaltzen doan heinean, aurretiko egoera normalera bueltatzen ari garela dirudi; hala ere, jakin badakigu, emakumeenganako zapalkuntzaren pandemiak oraindik ez duela etenik.

Normaltasun berriaren aurrean ekintzak, jarduerak, programak eta bestelakoak berriz antolatzen hasi dira, eta horiekin batera feminismoaren eta emakumeen eskubideen aldeko jarduerak ere bai. Baina, dirudenez, oraindik ez dago argi zein den gizonen papera testuinguru horietan.

Emakumeak ekintza horiek burutzerak kalera ateratzen garenean, gure enplegu falta, zaintzen gehiegizko zama, soldata arrakala, jasaten ditugun biolentziak eta ikusezintasuna, indarkeria

matxistak eta bestelakoak kontra gaudela aldarrikatzera ateratzen gara. Hau da, gure eskubideak aldarrikatzeaz gain, gure presentzia eta dagokigun tokia espazio publikoan berenganatzera irteten gara.

Gauzak horrela, gizonen paper garrantzitsua duzue borroka horretan, baina argi eduki ezazue: izan zaitezte lagun, ez protagonista.

Ekintza horietan zuek bigarren maila batean egon behar zarete zuek kide feministei laguntza eskaintzen, eta haien behar eta eskakizunak errespetatzen. Zuen ikusgarritasuna, esaterako, urteko 365etan bermatua duzue sistema patriarkalari esker, beraz, ez iezaguzue gurea oztopatu. Ekintza horien bitartez ahalduntzen gara, eta

sistematikoki ukatu zaigun tokia hartzen dugu, zeren eta, kirolak, politika, enpleguak, ikasketak, jaiak, eta kaleak ere gureak dira.

Beraz, emakumeen borrokan lagundu nahi duzun mutil edo gizon: entzun zure kide feministek esaten dizutenari, lagun iezaiezue behar duten guztian, har itzazue zuek gain zaintza lanen ardura, edozein egoera matxistaren aurrean ez zaitezte geldi geratu, zure kide feministek esango dizute zer egin, eta horiek ez badaude, egoera salatu eta noski, zisheteropatriarkatuak ezartzen duen maskulinitate toxikoaren eskubideak alde batera utzi. Hori baita gehien laguntzen diguna guztioi, ez gure ekintzetan ez dagokizuen lekuarengatik gure kontra egin, eta ekintza bera oztopatzea.



OBJEKTIBOTIK

Ondokoa ez da edozein aurkezpen

UEUko Psikologia Sailak GUNETuz ataria sortu du, psikologo euskaldunak saretu, beraien lana euskaraz egiteko baliabideak eman eta gizarteari eduki baliagarriak eskaintzeko asmoz. Donostiako atzoko prentsaurrekoan Josu eta Nour altsasuarrak izan ziren.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
 948 564 275 (3 luzapena)
 619 821 436
 Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
 618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
 eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
 31800 Altsasu
 948 564 275
 618 882 675



Gobierno de Navarra
 Nafarroako Gobernua



Sakanako udal eta ekonomia ordezkariak gobernukideen azalpenak entzuten. NAFARROAKO GOBERNUA

Industria lurrerako 27,839 milioi euro

Etxarrengo industrialdea garatu, Irurtzunen Inasa zeneko lurretatik kutsadura kentzeko, Altsasun Kapitansoro industrialdea garatzeko pausoak emateko eta lshphordingeko lantegi zaharrak berriro ordenatu eta kutsadura kentzeko da dirua

SAKANA

Sakanako udal eta ekonomia ordezkariak Maria Chivite Navascues lehendakariarekin eta Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrena Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariarekin elkartu ziren Irurtzunen astelehenean. Aierdik azaldu zuenez, "Sakanako sozioekonomia

garapenerako industria biraktibazioa eta garapen jasangarria bultzatu nahi dugu". Ibarreko industria garapenerako Nafarroako Gobernuak 27.839.000 euroko inbertsioa egingen duela jakinarazi zuten.

Etxarrenen 456.000 metro karratu gordineko industrialdea egiteko 11.600.000 milioi bideratu ditu foru administrazioak.

Eskualde mailako industria jarduerak ezartzeko da industrialde berria. Industrialde berriaren hirigintza planteamendua udan aurkeztuko dute. Bestalde, udan despedituko dituzte Irurtzunen Inasa zeneko lurretatik kutsadura kentzeko lanak. 170.000 metro karratu gordin dira. Horretara 8.300.000 euro bideratu ditu gobernauk.

Azkenik, Altsasun bi jarduera iragarri ditu Aierdik. Batetik, Kapitansoro industrialde berria garatzeko udalak eta gobernauk hitzarmena sinatuko dute eta, ondoren, industrialderen hirigintza planteamendua lantzen hasiko dira. Industrialde berriak 250.000 metro karratu gordin izanen ditu eta 7.600.000 euro bideratzea aurreikusi dute gobernauk. Azkenik, Nasuvinsa enpresa publikoa Altsasuko lshphording enpresaren instalazio zaharren ordenazio berriari eta handik kutsadura kentzeko lan egiten ari da. 20.500 metro karratu gordineko azalera du eta 339.000 euro bideratuko dituzte.

Berritasuna

Jakinarazi zuten, Sakana Lanbide Heziketa institutuak heldu den ikasturtean hezkuntza eskaintza handituko duela gradu gehiagorekin. Chivitek azaldu zuenez, "ikasturte honetan Nafarroako Ateca lehen geletako bat mustuko du, prestakuntza ematen den teknologia aplikatuko eremuak, adibidez, errealitate birtuala erabiliz". Lehendakariak gaineratu zuenez, "Hezkuntzaren kalitatea eta prestakuntzaren berrikuntza hobetzearen aldeko apustu garbia da".

Azkenik, Sakanako korridore ekologikoa sortzeko proiektuaren berri eman zuen, REACT funtsetatik bost milioirekin finantzatuta dagoena. Korridore hori Etxarri Aranatzeko dagoen autobiarren gaineratik 100 metro inguruko fauna pasabide bat da, eta Aritzalkoko hariztiaren bi eremuak lotuko lituzke. "Jarduera horrek kontserbaziorako garrantzi handia duen konektibitate ekologikoko arazo bat konpondu nahi du, eta bultzada garrantzitsua da tokiko ekonomiarendako".

Maiatzean hiru mediku plaza beteta

Chivitek jakinarazi dienez, "Altsasuko osasun eskualdean plaza finkoa duten hiru mediku lanean hasiko direla laster, asistentzia kalitatea hobetzen lagunduko dutenak, plantillaren behin-behinekotasuna murriztuz". Nafarroako Osasun Plataformako Sakanako kideek Osasunbideako ordezkariekin bilera izan zuten joan den astean eta jakinarazi zieten, "hiru mediku horiek maiatzean hasiko dira lanean, ibarrekoak izanen dira eta horrek aukera emanen du mediku plaza horiek urteetarako betetzeko". Joan den urtean 150 mediku plaza oposizio bidez betetzeko deialdia egin zuen foru administrazioak eta hura gaitu dutenak gaur egun zein tokitan ariko diren lanean aukeratzeko ari dira. Ikusteko dago gobernuaen aurreikuspena betetzen den.

Gaur egun Altsasuko osasun eskualdean bi mediku daude eta seik egon beharko lukete. Beraz, plaza bat betetzeko geldituko litzateke. Mediku horien lantokia honakoa da: 4 Altsasun, 1 Olatzagutian, 1 Altsasu-Ziordia.

bertako
igogaluak | ascensorés

22. korrika
HITZKIN
Amurriotik Donostia
2022ko martxoaren 1tik apirilaren 10era

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917

**EUSKARA,
GURE HELBURU KOMUNA**

DEITU EDO BISITATU
www.bertoko.eus

Trenbide azpiegituren modernizazioa bulkatzeko

Abiadura handiko plataforma berriek eragindako 35 toki-erakundetako ordezkariak manifestu bat adostu dute, salgaien eta bidaiarien garraioari benetako irtenbidea emateko egungo trenbide sarea birpentsatzeko unea iritsi dela ondorioztatu dute

SAKANA

Arabako eta Nafarroako tren korridoreko 35 udal eta kontzejutako ordezkariak bilera egin zuten martxoaren 10ean, eta erabaki zuten egungo trenbide azpiegituren modernizazioa bulkatzeko toki entitateek erakunde ekimena martxan jartzea. Manifestu bat adostu zuten. Toki erakundeek idatzi horretan egungo trenbide azpiegituren modernizazioa bulkatzeko eta egungo trenbide sarea birpentsatzea, salgaien eta bidaiarien garraioari benetako irtenbidea ematea, helmugako denborak hobetzea eta lurralde kohesioa eta egituraketa erraztea aldarrikatzen dute. Manifestua gaur egun Miranda de Ebro eta Iruñea artean proiektatutako abiadura handiko plataformek eragindako korridoreko kontzejuru eta udal guztietan eztabaidatzen ari dira.

Iratxe Mazak (Andoingo alkatea), Joseba Koldo Garitagoitiak (Dulantzik alkatea) eta David Orozek (Urdiaingo alkatea) azaldu zuten, "manifestuan gogorarazten da abiadura handiko proiektuak inoiz baino gehiago ari direla zalantzan jartzen erakunde eta instituzio asko". Azken Europar Batasuna izan dela aipatu zuten, "Europar barnako garraio sarearen erregelamenduen berrikuspenaren esparruan proposatzen baitu abiadura handiko linea horien ordezkari egungo trenbide azpiegiturak modernizatzea".

Bestetik, Europako Kontuen Auzitegiak ziurtatutakoa gogora ekarri zuten: "proiektatutakoa ez da 2030era arte bukatuko, gaitzuzkoak eta atzerapenak arau bihurtu dira, eta agindutako abiadurak ez dira lortzen ari, ondorioztatzen baita horren guztiaren ondorioz Europako laguntza askoren xahutze larria sortzen dela, eta horrek arriskuan jartzen duela haien baterako finantzaketa".



Udal ordezkariak AHTri buruzko eztabaida mahai gainean jarri dute.

EGUNGO TRAZADURA HOBETZEA NAHI DUTE PRESTAZIO HANDIKO TRENAK HANDIK IBIL DAITEZEN

Ekinbidea

Manifestua sustatu duten toki erakundeek eta harekin bat egin dutenek "konpromisoa hartu dugu gizarte mugimenduekin batera lanean jarraitzeko, gure lurraldearekiko errespetuzko konponbidea lortu arte, gure bizilagunen mugikortasun-beharrak asetzeko". Eta aitortu zuten "herri plataforma guztiek egingo dako lana, gizartea tren publiko eta sozial baten alde informatzeko, sensibilizatzeko eta mobilizatzeko helburuarekin, garraio bide iraunkor, herrikoi eta demokratiko gisa, eta Abiadura Handiko Trenaren ezarpenaren alternatiba gisa". Udal ordezkariak ziurtatu zuten, Abiadura Handiko Trenak "ondorio larriak ekarriko babilizuzke gure lurraldean, kalte sozial, ingurumenekoak eta ekonomiko itzulezinak eraginez".

Trenaren aldeko herri plataformek eta Espainiako trenbide zentral sindikal nagusiek 2021eko maiatzaren sinatutako akordioaz ere gogoratu dira udal ordezkariak. "Espainiako Gobernuari eskatu zioten trenbidearen egungo trazadurak egokitzeko eta hobetzeko, eta egungo trenbide proiektuaren plangintza birbidertzeko, prestazio handiko trenak egungo korridore hobetu eta egokitueta ibiltzeko". Horri lotuta, eskatu zuten 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako 200.000 euroko partida azkar gauzatzeko. Haren bidez, "Burgos-Gasteiz-Iruñea-Zaragoza trenbide azpiegiturak hobetzeko eta egokitzeko informazio azterlan bat idazteko da partida hori, prestazio handiko trenen eta trafiko mistoaren (bidaiariak eta salgaiak) zirkulaziorako".

Ekimenaren sustatzaileek jasotako babesekin Espainiako Gobernuarengana joko dute toki erakundeen iritzia jakinarazteko eta aurrekontuetan jasotako ikerketa egitea eskatzeko. Sakanan, momentuz Arruazuko eta Altsasuko udaletan onartu da idatzia.



Loreak tren istripukoaren omenez

Uharte Arakilgo tren istripua zela eta, hildakoen, zaurituen eta kaltetuen omenez ekitaldia egin zen igande eguerdian. Senide eta gertukoek aparte Uharte Arakilgo Udalak ere lore eskaintza egin zuen. Mezaren ondoren oroigarria dagoen tokiraino joan ziren fededunak eta han errespondua eta Aita Gurea errezatu zituzten. Minutuko isilunea ere gorde zuten.



Plataformak deitutako bilkura. ARTXIBOA

Osasun publikoaren alde lan egiteko antolatu dira

Nafarroako Osasun Plataformaren helburua da Nafarroan osasun publiko duina izatea, eta horretarako, beharrezko giza eta material baliabideak aldarrikatzen ditu. Plataformarekin harrimana duten hainbat sakan-darrek astelehenean bilera egin zuten eta Sakanako Osasun Plataforma sortzea erabaki zuten, ibarrean osasun zerbitzu duinak sustatzeko eta aldarrikatzeko.



Karparik gabeko Barazkigunea.

Barazkigunea karparik gabe, estalpe zain

Irurtzungo garai bateko barazkien azoka zenean karpa bat jarri zuen udalak 2015an. Baina karpa hori martxoaren akaberaz geroztik ez dago Barazkigunen, udalak kendu baitu. Izan ere, aurki estalpe finkoa eraikiko dute han. Estalpeak 276.500 euroko aurrekontua du, udalaren diruzaintzako gerakinarekin finantzatuko dira. Estalpeak festetarako egina egon beharko du.

Iturriak konpondu eta txukuntzeko auzolana

Mailusa larrainean, Bideberrialde eta Elizazpi kalean dauden iturriak eta garbitokiak txukunduko dituzte bakaikuarrek auzolanean. Zurajea mantendu, teiladura txukundu eta paretak margotuko dituzte. Ordenantza onartu zenetik deitu den aurrenekoa da

BAKAIKU

Bakaikuarrei auzolanerako deia egin die udalak. Berritasuna da parte hartze prozesuaren bidez onartutako auzolan ordenantzarekin udalak egiten duen estreinako deialdia dela. Izan ere, plan estrategikoa 2019an onartu zuten bakaikuarrek eta hiru lehenetsun markatu zituzten: etxebizitza, eskolen erakina eta auzolana. Azken horri buruzko parte hartze prozesua 2019ko garilaren 21eko herri galdeketaarekin despeditu zuten. Baimen guztiak eskuratu ondoren, eta pandemiak eragindako osasun egoeratik nahi baino gehiago atzeratuta, bihar



Anbeiko iturri eta garbitokia. ARTXIBOA

ekinen diote auzolanari bakaikuarrek.

Aurreneko auzolanerako deialdia eginda, hura egitea erabaki duten bakaikuarrek larunbatean, 08:30ean dute hitzordua udaltxeko atean. Han lanen banaketa eta lan taldeak osatuko dituzte. Egitekoen artean daude iturrietako teilatuak garbitu, zura lixatu eta berniza eman, paretak margotzea eta harria garbitzea. Lan horiek egiteko udalak beharrezko materiala auzolangileen eskura jarriko du. Baina bakarren batek etxetik bere tresna eraman nahi badu, horretarako aukera izanen du. Goizean zehar 20 bat minutuko atsedendia egingen dute eta gosaria jasoko dute. Auzolana despeditu baino 10 minutu lehenago egitekoak gelditu eta erremintak eta bestelakoak jaso eta garbitzeko erabiliko dira.

Ezaugarriak

Ordenantzan auzolantzat hartuko dute Bakaikuren gizarte, ekonomia eta kultur garapenari mesede egiten dion prestazio prestazio pertsonal guztiak. 18 eta 55 urte arteko bakaikuarrek urtean auzolan bat egin

beharko dute. Beraiek ezin badute egin haien ordezkari auzolana egingen duen ordezkari bat bidaltzea posible izanen da. Hala egin nahi dutenek alde aurretik udalari jakinarazi beharko diote, eta berak izanen du erabakitze eskumena. Urteko auzolana egiten ez duenak isuna jasoko du.

Herriaren aldeko bost orduko lana egin beharko dute bakaikuarrek. Hala ere, prestazio pertsonal berezitat hartuko dituzte kultur, gizarte eta bestelako lantaldeak. Auzolanera joan behar duten bakaikuarrek udalari alde aurretik jakinarazi behar diote lanera joan direla: auzolana egin baino 48 ordu lehenago jakin behar du udalak zeinek egingen dituen lanak. Joan behar ez duenak 72 ordu lehenago jakinarazi beharko dio udalari ez dela joanen.

Bestalde, ordenantzak aukera ematen die bakaikuarrei beraiek auzolan bezala ulertu ditzaketen lanak zein diren. Edota beraien kabuz egin ditzaketenak proposa diezaiokete udalari. Horretarako, idatzi bat aurkeztu edota udaltxeko idazkaritzara jo dezakete zehaztapenak ematera.

Jarraipeneko aurrekontuak Hiriberrin

Kontzejuak aurten 24.106 euroko aurrekontua du. Erortzeko arriskua duen Arakil ibaiko zubia konpontzeko dirulaguntza lortzea espero dute kontzejuan, bestela ezin baitio 200.000 euroko aurrekontua duen lanari aurre egin

HIRIBERRI ARAKIL

Hiriberrin Arakilgo Kontzejuak 24.106 euroko aurrekontua du aurten. Haietatik 8.791 euro inbertsioetarako dira. Horieta nabarmenena da argiteria publikoko bonbillak LED argienatik ordezkatzeko. Kontzejuko presidente Javier Arrieta Anizek azaldu duenez, "lan gehiago egin nahi ditugu, baina horretarako dirulaguntzak behar ditugu". Arakil gaineko zubia konpontzea da egitekoen artean dutena (arkuan harrik faltan ditu), bestela erori baitaiteke. Kontzejuak bakarrik ezin dio aurre egin 200.000 euro inguruko inbertsioari eta dirulaguntza eskatuko dute.

Kontzeju etxearren atzeko aldean dagoen biltegiko atea berritzeko dirulaguntza eskaera egin zuen udan Hiriberrin Arakilgo Kontzejuak, baina ez zuen dirulaguntzarik jaso. Kontzejuak urtean hamar auzolan deitzen ditu eta hala hainbat lan egiten dituzte hiriberriarrek. Beste lan batzuk Arakilgo Udalak udarako kontratatutako langileek egiten dituzte. Langile horiek egin ditzaketen lanen zerrenda osatzen aurki hasiko dira kontzejuan.

Bestalde, kontzejuak epaitza saltzeko deialdia egin zuen, baina ez zen inor aurkeztu. Kontzejuoak egurketariekin hizketan ari dira eta badirudi bakarren

batek hartuko duela epaitza. 8.307,22 euro (BEZ kanpo) balio ditu epaitzak. Madotzek eta Hiriberrin Arakilek duten elkarrekiko basoaren edo partzuergoaren parte da, "beraz, lortutako dirua bien artea banatuko dugu".

Azkenik, hondakinak bereizita jasotzeko ekarpen etxola Goialde kaleko 7. zenbakiaren parean dago. Han etxea egin behar dute eta etxola kendu behar da. Hura non jarri aztertzen ari dira. "Guk proposamena egingen dugu, behar izanez gero, zoruan porlana zabaldu beharko litzateke, eta etxola tokiz Mank-ek aldatuko luke", azaldu du Arrietak.

SAKANERRIA BIDEAK
IRATXOELKARTEA 2022

IBILBIDE LUZEA: IRTEERA: 06:00
54 Km. | 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30
25,5 Km. | 1.440 mko desnibela

IBILALDI TXIKIA: IRTEERA: 09:30
14 km. | 736 mko desnibela

izena-emateak apirilaren 1etik apirilaren 26ra bitarte

Aurten ezingo da izen-ematea ibilaldiaren egunean bertan egin!

www.zirkuitua.com
www.iratxoelkartea.com

Elkartasunari maila askotan ekiteko

Igandean, 11:00etatik 14:00etara, kultur gune pareko zabalgunean elkartasun azoka izanen da. Salmenta, giza eskubideen, zurrumurrueen kontrako, hausnarketarako, ama hizkuntzen berri izateko, elkarteen eta jolasen txokoak izanen dira

ALTSASU

Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak Elkar ezagutu eta onartu, elkar(r)ekin ongi bizitzeko proiektua garatu zuen. Horren baitan, Anitzarteanek eta Sakana Harrera Haranak (SHH) Ongi etorri elkartasun hamabostaldia antolatu zuten joan den urtean, eta orduan jaso zuten proposamena eta bat izan zen elkartasun azoka bat antolatzea. Igandeko ekitaldia zerbitzuaren Sakanan(h)itza proiektuaren baitan txertatu da.

Begoña Zestau Baraibar kulturartekotasun teknikariak azaldu duenez, azokak hainbat helburu ditu. Batetik, "etxean ditugun, erabiltzen ez ditugun eta egoeran onean dauden arropa eta objektuak berrerabiltzea. Beste bizi bat ematea, baina bizi solidarioa, azokaren egunean salmantan jarritz". Sakana Harrera Haranak kideek otsailaren 28an geroztik bilketa egin dute Altsasuko Udalak utzitako egoitza batean. Juan Pedro Higuero eta Josu Rubiok azaldu dutenez, "lehendabiziko urtea izateko bilketa nahiko ongi ateratu da. Hurrengo urterako leku handiago bat beharko dugu, aurrean nahikoa bete dugulako". Denarik jaso dutela azaldu dute: liburuak, jostailuak, arropa...

Zestauk esan duenez, "prezio merkean gauza horiek salduz, etxeko ekonomia egoera ahulean dutenei gauzak eskuratzeko erraztasunak eman nahi dizkiegu". Gaineratu duenez, "azokan salduko ez litzatekeen zerbait geldituko balitz Iruñeko Elkarri Laguntza elkarteari emanen liokete. Argitu dutenez, elkartasun azokarekin lortutako dirua SHHren jarduerak finantzatzera bideratuko dira. Zerbitzuak sustatuta sortu zen SHH 2017an eta hainbat sakandarrez osatutako sarea sortu dute. Igandeko azoka modukoaz aparte, erakusketak antolatu dituzte, adingabemigratuendakoharreramaheian parte hartu dute eta bestelakoak



Juan Pedro Higuero, Begoña Zestau eta Josu Rubio parte hartzeraz gonbidatzen.

KULTURARTEKO ELKARBIZITZARAKO DEKALOGOA EZAGUTZEKO AUKERA IZANEN DA

egin dituzte. SHH, besteak beste, pertsonen mugimendu librerako eskubidea aldarrikatzen du, eta Sakanan pertsona guztiak ongi etorriak direla diote. Haiekin harremanetan jartzeko igandean azokatik pasa edo bestela sakanaharreraharana@gmail.com. Facebook-en ere profila badute.

Azoka, eta gehiago

Igandean Iortia kultur gune partetik pasatzen direnek azokaz aparte goiza pasatzeko hainbat txoko opatuko dituzte. "Zertarako? Ba, elkar ezagutzeko, estereotipoa eta aurreiritziak hausteko, aniztasunaz jabetzeko eta zurrumurruek desaktibatzen joateko", azaldu du teknikariak. Hala, elkartasun azokatik pasatzen denak Anitzartean zerbitzuak sortu duen kulturarteko elkarbizitzarako dekalogoia eza- gutzeko aukera izanen du.

Gainera, hainbat txoko izanen dira. Zurrumurrueen gunean esamesa mota horien inguruan hausnartzera gonbidatzen duen espazioa. Giza eskubideen unibertsaltasunaz eta urraketaz hausnartzeko beste txoko bat ere prestatuko dute Help-NA elkarteok igandean. Hausnarketarako gunean, berriz, pentsarazteko hainbat galdera eta irudi izanen dira.

Ukraina ere presente izanen da igandeko ekitaldian. "Egoki da haiekiko elkartasuna adieraztea, baina baita munduko bestea hainbat eta hainbat gatazka, bidegabekeria eta eskubide urraketa ere: Palestina, Sahara, Yemen, Mali, Kongo, Etiopia, Afganistan... Horiek ere presente ditugu", argitu du Zestauk. Azokan sakandarrei hitza emanen zaie, baita dakartziten ama hizkuntzei ere. Hau da, minorizaturikoei elkartasuna eta keinua adieraziaz. "Horretarako aman hizkuntzen txokoa, eta hainbat jolas izanen dira". Gainera gaur ijito herriaren nazioarteko eguna da eta haiek ere nolabaiteko presentzia izanen dute. Gainera, aniztasunaren okaren jolasean jolasteko eta ikasteko aukera izanen da, baita munduko eta antzinako jolasetan aritzeko ere.

Astelehenean jakinen da 0-3an greba egingen duten

Haur eskola guztietako hezitzaileek grebaren aldeko edo kontrako botoa emanen dute

SAKANA

Nafarroa 0-3 Plataformak deituta, haur eskoletako hezitzaileek greba batzarra egin zuten atzo. Hezitzaileek erabaki zuten sindikatuen ordezkariarik ez dagoen haur eskoletan batzar deialdiak egitea astelehenean grebaren inguruan botazioa egiteko. Beraz, astelehenean jakinen da haur eskoletako hezitzaileak maiatzaren 2tik aurrera greba mugagabea egingo duten edo ez. Emaizaren arabera plataformak hainbat mobilizazio antolatuko lituzke.

Plataformako kideek jakinarazi dutenez, PSNk ezik, Nafarroako Parlamentuan ordezkariak izan zela gaineratu dute. Argitu dutenez, sozialistek "PSNk eta Hezkuntzako 0-3 Zerbitzuak diote beraiek finantzaketa hitzarmenak sinatzen dituztela udalekin, baina horiek direla ratioa jaitsi edo lan baldintzak hobetu ahal dizkigutenak". Hezitzaileek Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak esanak ekarri zituzten gogora: "udalek ez dute finantzaketaren %24 baino gehiago beren gain hartu behar".

Hezitzaileek azaldu dutenez, sozialistekin izandako bileran "zarata soziala jaisteko, lanik gabe uzteko, ziklo osoa Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroetara pasatzeko eta PAI Lehen ziklorako zabaltzeko mehatxua egin ziguten". Nafarroako 0-3 Plataformako PSNko kideei berretsi zieten greba bertan behera uzteko lan negoziazio mahai bat baino ez dutela nahi, "baina PSNk, beste batzuetan erakutsi duen bezala, ez du elkarrizketarako borondateirik".

Etxarriko eskolak plazan festa antolatu du biharko

Eskolak 12:30etik aurrera herri guztiari zabalik dagoen ospakizuna prestatu du plazan

ETXARRI ARANATZ

Pandemiak bertan behera utzi zuen eskolako festa antolatuko du azkenik San Donato Eskola publikoko guraso elkarteak. "Pentsatu genuen urtean behin elkarrekin ongi pasatzeko eta gainontzeko guztiei zabalik egonen zen ospakizun bat antolatzea polita litzatekeela", azaldu du guraso elkarte kide Urko Mauduit. Gaineratu duenez, "gurasoek eskola atarian edo eskolaz kanpoko ekintzetan bat egiten dugu. Irakasleak ikasleekin dute harremana eta gurasoek irakasleekin. Ez gara nahasten eta festa txiki horrekin denak elkarrekin ongi pasa dezakegula erakutsi nahi dugu. Komunitatea sortzeko modua izan nahi du". Festaz gozatzea etxarriar guztiak gonbidatu dituzte.

Egitaraua 12:30ean zabalduko du erraldoi konpartsak. 13:30ean hasiera ekitaldia izanen da eta segituan bazkaria. Ondoren, Etxarri Kantuzekin kantari arituko dira. 17:00etan herri kirolen txanda izanen da. Xaiborren dantzaldia 18:30etik 20:30era izanen da, eta 18:45ean auzatea izanen da. Egunean zehar tarta eta opari loteen zozketa egingen dute. Arratsaldean xake partidak eta erakusketak izanen dira.

Hiru jatetxek Errepideko Solete izendapena jaso dute

Autobia eta errepide erabilienean ondoan dauden halako 319 establezimendu zerrendatu ditu Repsol Gidak Errepideko Soleteak izenarekin, "zerbait hartzeko edo jateko leku gustagarriak dira, prezio merkean". Horieta hiru sakandar daude: Etxarriko Iratzer jatetxea, Arbizuko Izar Ondo jatetxea eta Altsasuko Arangoa taberna-jatetxea.



23 bat metro luze eta 0,5 altu da.

Troskerak eragindako uholdeak saihesteko pareta jaso

Urbasatik jaitsi eta Inguraketa kalean lurpean sartzen da Troskera erreka. Eta lurpetik zeharkatzen du Olatzagutia. Euri asko egiten duenean edota elurra urtzen denean errekek gainezka egin eta uholdeak eragiten ditu herrian. Hori saihesteko Olatzagutiko Udalak erreka Inguraketa kalearen ondoan egiten duen bihurgunean hormatxo bat jaso du.

Mankomunitateak bi hautagai zerrenda sortu nahi ditu

Lanpostu hutsak betetzeko, baten edo oporren ondoriozko behin behineko ordezkapenak egiteko edota zerbitzuak indartzeko unean uneko beste edozein behar betetzeko. Arrazoi horien artean Sakanako Mankomunitateak hautagaiak aukeratzeko bi hautapena jarri ditu martxan administrari ofizial lanpostua eta garbitzaile lanpostuetarako.

Udalak langileen ordezkapenak egiteko zerrenda osatuko du

Oposizio lehiaketa sistemaren bidez Lanen Brigadako udal eraikinak garbitzeko eta zerbitzu anitzetako enplegatutako lanpostu aldi baterako kontratatatzeko izangaien zerrenda egiteko prozesua jarri du martxan Altsasuko Udalak. Epaimahaiak kontuan izanen ditu lan esperientzia eta lanarekin zerikusia duen prestakuntza.

Alokairuko etxebizitzak eraikitzeke oniritzia

Udalak baiezkua eman dio Nasuvinsa enpresa publikoarekin hitzarmena sinatzeari. Ondorioz 35 urtez beherakoei zuzendutako alokairuzko 21 etxebizitza egingen dira Otadia inguruan. Udalak behe solairuko 596 m²-ko espazioa eskuratuko du

ALTSASU

Udal bilkurak onartu ondoren, Altsasuko Udalak Nasuvinsarekin hitzarmena sinatzeko argi berdea du. Haren bidez udalak Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoari Galtzada, Amandrea eta Uhaldera kaleen artean dagoen partzela bat utziko dio han babes ofizialeko etxebizitzak egin ditzan. “Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du lehen fasean aipatutako lurzatian babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari atxikitako 21 etxebizitza inguru sustatzeko”, azaldu du Javier Ollo Martinez alkateak. Gaineratu duenez, “batez ere 35 urtetik beherako gazteendako izanen dira etxe horiek, gaur egun alokairuko etxebizitzaren eskari handiena duen biztanleria delako. Ezgaitasunen bat duten pertsonak edo bestelakoak dituztenak ere aukera izanen dute, beti ere, udalak eta Nasuvinsak osatutako batzordeak zehaztutakoaren arabera”.

Etxebizitzak eraikitzeke lehen fasea partzelaren hegoaldean, Uhaldera kalean egingen da. Behe solairua eta hiru alturako eraikin bat izanen dela aurreratu du alkateak. “Nasuvinsak 21 etxebizitza horiek egiteko proiektua izateko ideia lehiaketa dei-

Udalak Otadia aldean duen partzela horrek 1.690 m²-ko azalera du

tuko du”, zehaztu du Ollok. Lehen faseko eraikineko beheko solairuko 596 m²-ko lokal eraikia udalarendako izanen da, dohainik, eta ekipamendurako bideratuko da.

Bi aldeek eskritura publikoa sinatzen dutenetik Nasuvinsak gehienez urte bat izanen du eraikinaren babes ofizialeko etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioa eskatzeko. Epea pasata enpresa publikoak pausorik emanen ez balu, partzelaren jabetza udalaren eskura bueltatuko litzateke. Nasuvinsak

lehen faseko babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa lortu ondoren, Nasuvinsak bost urte izanen ditu partzelaren beste zati batean etxebizitzaren bigarren sustapen fase bat egiteko. Hala ez balu egingen, udalak batere kosturik gabe berreskuratuko luke eraiki gabe geldituko litzatekeen partzela zatia. Otadia aldean eraikitzea aurreikusten diren etxebizitza horiek guztiak publikoak dira. Baina “titulartasun publikokoak izateari utziko baliote, Altsasuko Udalak eskubi-

dea izanen luke utzitako lursaila eta han eraikitako etxebizitzak, kargarik gabe, itzultzeko eskatzeko, eta ez luke inolako kalte ordainik edo ordainketarik ordaindu beharko, Nasuvinsak edo sozietate jabeak beharrezko gastu guztiak bere gain hartuta”.

Alokairuko etxebizitza falta

Udalean jakitun dira Altsasun alokairuko etxebizitzaren eskaera handia dagoela, batez ere gazteen artean. Hala ere, alokatzeko etxebizitza gutxi daude eta gazteen eskaera ez da betetzen. “Gure udalerrian horrelako etxebizitzarik ez izateak eta horrek gazteengan duen eragin nagusiak berekin dakar, alde batetik, emantzipatzeko zailtasuna eta, bestetik, altsasuarrek alokairuan bizitzeko aukera duten beste herri batzuetara joatea”.

Egoera bideratzeko alokairuzko etxebizitzak eraikitzeaz aparte, udalak Nasuvinsaren alokairu poltsarekin bat egin zuen joan den urtean. Haren bidez beraien etxe bat alokatu nahi dutenek errenta puntualki eta aseguratuta kobratuko dute lehen maizterra sartzen denetik. Nasuvinsak etxebizitza egoera onean bueltatuko dio (etxebizitzaren erabilera normalak eragindako ohiko higaduratik salbu) eta etxebizitzan gerta daitezkeen ezbeharrak estaltzen dituen arrisku anitzeko aseguruia (edukitzailearena) kontratatua izanen du enpresa publikoak. Alokairuko etxeagatik ordaindu beharreko errentaren %25, 50, 75 edo 90 ematen die gobernuko familia maizterrei, beren diru sarreren eta familia unitatearen arabera. Horrela, familia horiek beren ekonomia ahalmenaren arabera arrazoizko errentamenduak eskuratu ahal izan ditzaten.

MAPFRE

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com
948 563 354 · San Juan 48 behekoa · ALTSASU

PORTUKO

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranzat:
948 460 988



411 Kukurreka elkarte



412 Amaraunako kideak



413 Ziordiko Udala



414 Ziordiko Gazte Asanblada



415 Iñigo Aritza ikastolako familien kooperatiba



416 Olaztiko Udala



417 Sakana MotorSport



418 Uharte Arakil, Urdiain eta Iturmendiko herri eskolak



419 Altsasuko Gazte Asanblada



420 Iñigo Aritza ikastolako langileak



421 Zelandi herri eskola



422 Altsasuko Dendarien Elkarte



423 Altsasuko Udala/Erkudengo Ama abesbatza



424 Altsasu BHI



425 Ramoseko langileak



426 Copreci



427 Viscofango langileak



428 Urdindar prestuak: Oier eta Araceli



429 Urdiaingo Udala



430 Aitziber eta Tintinuturri elkarteak



431 Magotteauxeko langileak



432 Magotteaux enpresa



433 Iturmendiko Udala



434 Aritzaga eta Aizkozar elkarteak



435 Bakarreko etxea elkartea



436 Bakaikuko Udala



437 Bakaikuko Gazte Asanblada



438 Harzabal elkartea



442 Etxarriko Gazte Asanblada



443 Etxarriko Aranazko Udala



444 San Donato ikastetxea



445 Arbizuko IAT



449 Arbizuko Gazte Asanblada



450 Lakuntzako Herri Eskola



451 Lakuntzako Udala



452 Lakuntzako Pertza elkartea



456 Jeingenekoa esnekiak



457 Uharteko Arakilgo Udala



458 Aralarmendi elkartea



459 Andra Mari ikastolako



439 Larrañeta elkarte

440 Karrikestu elkarte

441 Andra Mari ikastolako ikasleak



446 Lizarraatarrak

447 Lizarragabengoako kontzejua

448 Arbizuko Udala



elkarte

453 Bikain garajea

454 Arruazuko Udala

455 Aldabide elkarte



o familien kooperatiba

460 Andra Mari ikastolako langileak

461 Irañetako Udala

462 Irañetako euskara taldea



463 Ihabarko kontzejua



464 Txep kuadrilla



465 Hiriberriko Kontzeju eta Txitera elkarte



466 Arbizuko Herri Eskola



467 Arakilgo Udala



468 Mekalsako langileak



469 G.H. Guerrako langileak



470 Etxarrego kontzejua



471 Iratxo elkarte



472 Irurtzungo Gazte Asanblada eta Larrazpi elkarte



473 Urritzolako kontzejua



474 Kagako



475 Hydro Extrusion Spain SAU



476 Hydro Extrusion Spain SAU



1273 Oritz dantza taldea



1274 Irurtzungo Udala



1275 Atakondoa eskola



1276 Aizpea euskara taldea



1277 Pikuxar euskal txokoa



1278 Sakanako Mankomunitatea



1279 Guaixe Fundazioa

ARGAZKI GEHIAGO
ETA KORRIKAK EMANDAKOA
www.guaixe.eus-en

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 13. JARDUNALDIKO EMAITZA
Doneztebe - Lagun Artea 0-1

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA

1 Artajonés 46
9 Lagun Artea 31

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:30 Lagun Artea - Zirauki (Zelai Berr)

Lagun Artea, beste garaipen baten bila
Lakuntzarrek sailkapenean 11. den Zirauki taldea hartuko dute etzi, arerio zuzena.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

2. FASEA. 6. JARDUNALDIKO EMAITZA
Gazte Berriak - Altsasu 1-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. MANTENTZEA

1 Lourdes 34
9 Altsasu 1

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

10:00 Lagunak - Altsasu (Lagunak)

Altsasu Lagunak taldearen kontra
Altsasuk itxura hobea eman zuen azken partidari eta bide beretik segi nahi du.

FUTBOL PREFERENTEA

27. JARDUNALDIKO EMAITZA
Amigo - Etxarri Aranatz 4-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Injerto 66
13 Etxarri Aranatz 26

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

19:00 Beriain - Etxarri (Beriain)

Etxarri vs Beriain, puntu garrantzitsuak
Azken jardunaldiko estropezua eta gero, jokoan dauden puntuak beharrezkoak dira.

FUTBOL ERREGIONALA

24. JARDUNALDIKO EMAITZA
Valle Aranguren - Altsasu 1-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1 Altsasu 55
2 Aurrera 55

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Altsasu - Asdefor (Dantzaleku)

Altsasuk lider jarraitu nahi du

Altsasu liderrak irabaztea derrigorrezkoa du lehen postuan jarraitu nahi badu.

Txirrindularitza hitzordu bikoitza Altsasun

TXIRRINDULARITZA Larunbatean kadeteen 34. Burunda Trofeoa jokatu da 16:00etatik aurrera eta igandean juniorren 63. Erramu Trofeoa, 10:30ean. Kadeteek Altamira behin igo beharko dute, eta juniorrek hirutan, azken biak segidan

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Asteburuan hitzordu bikoitza dago Altsasun. Larunbatean, Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatutako 34. Burunda Trofeoa abiatuko da 16:00etan Iortia zabalgunetik (51 km). Zior dia eta Bakaiku artean jokatu da. Txirrindulariek Altamira behin igo beharko dute, 38,5 kilometroan, eta helmuga Altsasuko udaletxe parean izango dute, 17:15etik aurrera.

Altamira hirutan


Aldiz, igandean junior mailako txirrindulariak izango dira Altsasun bilduko direnak, 63. Erramu Trofeo beteranoa jokatzeko (88 km). Lasterketa Altsasu Kirol Elkarteak antolatzen duenez, elkartearen egoitzatik aterako da, 10:30ean. Josefina Arregi-San Pedro-Urdia zirkuitua oinarri izanda, Zegamako bidegurutzeraino behin iritsiko dira eta Altamira hirutan igoko dute, azken bi igoerak segidan.



Arrieta eta Izagirre Itzulian


Larunbatean despedituko da Euskal Herriko Itzulia. Asteartean Sakanatik pasa zen eta ikusmin handia piztu zuen. Igor Arrieta (Kern Pharma) eta Gorka Izagirre (Movistar Team) lan ederra egiten ari dira. Baita Jorge Azanza zuzendaria ere (Euskaltel).

Juniorrak



UNZILLA TXAPELDUN
SAKANA-GROUP

Larunbatean Amorebietako 58. Udaberri Klasikoa jokatu zen (92 km). Elurrak izugarri gogortu zuen proba. Mikel Unzillak irabazi zuen, bere taldekide Aimar Tadeori 18 segundoko aldea irabazita.



ETXEBERRIA TXAPELDUN
QUESOS ALBENIZ

Igandean Felix Errandonea Memoriala jokatu zen Beran (70 km). Helmugara batera iritsi zen hirukotearen esprintean Asier Etxeberria gailendu zen, eta hirugarren Alex Lopetegi sailkatu zen (Sakana Group).



ANDRA MARI

Andra Marik brontzea sokatiran

HERRI KIROLAK Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen laugarren jardunaldia jokatu zen Igantzin, eta bertan Iñigo Aritzeta eta Andra Mari ikastoletako herri kirol proba konbinatuek eta sokatira taldeek hartu zuten parte. Andra Mari taldea kadeteen mailako Nafarroako Herri Kirol Jokoen Sokatira Txapelketan hirugarren sailkatu zen.



GP INDURAIN

Floren Esquisabel, omendua

TXIRRINDULARITZA Miguel Indurain Sari Nagusiko antolakuntzak Floren Esquisabel olaztiarra omendu zuen Lizarrako lasterketa hasi baino lehen. Pilotaria izan zen -Mexiko 68 Olinpiar Jokoen urrezko domina lortu zuen eskuz binakakoan-, eta txirrindularitzan Burunda Klubaren sortzaileetako bat eta Rural Kutxa taldeko sustatzaileetako bat dugu.



Mikel Astizek, ezkerrean, eta Antton Zelaia, eskuinean, maiatzaren 28an hasiko dute abentura. UTZITAKOA

"Senegalera 25 bizikleta bidaltzeko dirua lortu nahi dugu"

ANTTON ZELAIA ETXARRI ERROMA-SAKANA ERRONKA SOLIDARIOA

TXIRRINDULARITZA Antton Zelaia eta Mikel Astizek erronka solidarioa egingo dute. Erromatik aterako dira bizikletan, Sakanara iristeko. Crowdfunding kanpaina abian dago

Maidar Betelu Ganboa URDIAIN / IHABAR
Antton Zelaia Etxarri urdiaindarrak eta Mikel Astiz Erro ihardarrak aspalditik Erroma eta Sakanara bizikletan lotzeko asmoa zuten, baina ekimena erronka solidario bilakatu dute. Bicycles Sin Fronteras Gizartez Kanpoko Erakundearendako diru bilketa egiten ari dira, Senegalera 25 bizikleta bidali ahal izateko. **Bizikletan Erroma eta Sakanara lotzera animatu zarete.**

Mikeli eta bioi kirola egitea gusatzatzen zaigu. Kirolariak gara. Ni

korrika ibili izan naiz gehiago eta Mikel txirrindularitzatik dator, nahiz eta korrika eta igeri ere egiten duen, triatleta baita. Bizikletan ibiltzea ere gustuko dut, bereziki zikloturismoa egitea. Hau da, bizikleta hartu, zakutoak

"ESKOLAK DISTANTZIA HANDIRA DAUDENEZ, BIZIKLETEKIN ESKOLARATZEA SUSTATU NAHI DA"

edo alportxak bete eta egun batzuk bueltaka ibiltzea. Berdin dio nora. Mikelek ere ibilbide batzuk egin izan ditu bizikletan, esaterako Transpirenaica, hau da, Kataluniatik Euskal Herriraino Pirinioak gurutzatu ditu. Ni Portugalen, Kanariar irletan, Donejakue bidean, Frantziaren... toki askotan ibili naiz.

Aspaldiko ezagunak al zarete?
Ez, duela urte bat ezagutu genuen elkar, Andorran. Lagun batek, Sergio Garcia de Eulatek, triatloi proba bat prestatu behar zuen

bertan, eta berarekin joatera gonbidatu gintuen. Lagunak egin ginen. 2021ean bizikletarekin etxetik atera, Galiziaraino iritsi eta Portugal beheraino jaitsi nintzen, Algarveraino, eta Mikelek eskatu zidan hurrengo zikloturismo bidaia nirekin egitea. Italiatik Euskal Herrira etortzeko ideia nuela aipatu nion eta elkarrekin ibilbidea prestatzen hasi ginen. Erabaki genuen Erromara hegazkinez joan eta handik maiatzaren 28an abiatuko garela bizikletan, hamabost egunetan etxeraino iristeko asmoz. 1.700 kilometro dira: Italia, Frantziako Kosta Urdina, Pirinioetako goialdea, Canal Du Midi, Frantziako Tolosa eta Euskal Herria. Hori da gure asmoa.

Baina zuen zikloturismo bidaia erronka solidarioan bilakatu da.

Ia konturatu gabe ekimen solidario bat sustatu dugu. Bicycles Sin Fronteras izeneko Gobernu Kanpoko Erakundearen (GKE) ibilbidea aurretik jarraitzen nuen. Bulkatzen dituzten proiektuak sekulakoak iruditzen zaizkit. Nire enpresatik, Egurdiain, sustatzaileekin, Roman eta Ines bikote kataluniarrekin jarri nintzen harremanetan, Senegalaren haurren eskolaratzea sustatzeko duten bizikleta proiektuan beraiekin kolaboratu nahi nuela esateko.

Zein lan egiten dute Senegal?

Senegalaren dagoen arazoetako bat da haurrei asko kostatzen zaiela institutura joatea, distantziak handiak direlako. 10km edo 15 kilometrora dute eskola, eta hori oinez joateko oso urruti da. Gaztetxo asko ikastetxera joaten hasten dira, baina gero utzi egiten dute. Senegalgo proiektu honekin, ikasi nahi duten gaztetxo horiek bizikletak alokatzen dizkiete, prezio oso sinbolikoan, euren konpromisoa lortzeko. Hau da, Bicycles Sin Fronterasekin bertako ikastetxe eta institutuekin hitzarmena du, eta ikastetxeak dira GKE-ri oso urruti bizi diren horrenbeste ikasle dituztela, eta horrenbeste bizikleta behar dituztela esaten dietenak. Orduan, Bicycles Sin Fronterasekin bizikleta horiek egiten

"BICICLETAS SIN FRONTERASEN EKIMENA OSO EDERRA DA; JENDEA ANIMATU NAHI DUGU"

ditu, Senegalera bidali, eta ikasleek alokatu egiten dituzte. Erakundeak ere Senegalaren tailer txikia du, bizikletak konpontzeko. Oso ongi landutako proiektua iruditzen zitzaidan, eta duela hilabete bat nire enpresatik deitu nien, beraiekin kolaboratzeko.

Orduan sortu zen, beraz, Erroma-Euskal Herria erronka solidarioa?

Bai. Zaletasunen bat ote nuen galdetu zidaten eta bizikletan ibiltzea gustuko nuela aipatu nien, lagun batekin Erromatik abiatu eta Euskal Herriraino joateko asmoa genuela. "Bikain, zergatik ez duzue zuen zikloturismo martxa Bicycles Sin Fronterasen aldeko erronka solidarioan bilakatzen, diru bilketa edo crowdfundinga egiteko?" proposatu zidaten. Eta nik ez dakidanez ezetz esaten, baiezkoa eman nien. Mikeli deitu eta berari ere ekimen bikaina iruditu zitzaien. Orain ezin dugu atzera egin (kar, kar...).

Zuen erronka solidarioarako diru ekarpena edo crowdfundinga nola egin daiteke?

Mi grado de arena fundazioko webgunean sartu behar da. Horzenbait GKE-en proiektuak daude jasoak, tartean gurea. Biltzailean Sakana edo Egurdiain idatziz, gure erronka agertzen da: Roma-Sakana en bicicleta du izena, gazteleaz. Bertan sartuta, han egin daiteke ekarpena. Dagoeneko 2.215 euro jaso dira gure proiekturako. 25 bizikleta erosteko dirua bildu nahi dugu, 4.500 euro, eta oraindik 65 egun ditugu ekarpenak jasotzeko.

Bicycles Sin Fronterasekin Senegalera bidaltzen dituen bizikletak egiten dituela aipatu duzu.

Hasieran bizikleta zaharrak biltzen hasi ziren, baina, ez omen zen batere bideragarria. Gehiago kostatu omen da bizikleta erabiliak jaso konpondu eta Senegalera bidaltzea berriak egitea baino. Beraien bizikleta propioa sortu zuten, eta Baobike izena jarri zioten. Baobab-Afrikako zuhaitz bat da, oso handia. Baobike oso izen polita iruditzen zait. Bizikletak Turkian egiten dituzte, bertan duten tailer batean, hori kolorekoak dira, eta gero Senegalera bidaltzen dituzte. Bicycles Sin Fronteras webgunean dago informazio guztia.

Senegalera 25 bizikleta bidali ahal izateko euren laguntza ematera animatuko al ditugu sakandarrak?
Jakina! Animatu daitezela, ekimen ederra delako.



Sufrikario latzaren ondoren Julen Martijak eta Jokin Altunak merezitako saria jaso zuten. ASPE

Izarrak ikusi eta ukitu zituzten

PILOTA Julen Martijak eta Jokin Altunak zapore ezin hobea duen txapela jantzi zuten igandean Bilbon jokaturako final epikoan. Kontrako 11 eta 17ari buelta eman zioten, oinazeak gaituz eta ariketa mental ikaragarria eginez

Maidar Betelu Ganboa ETXEBERRI
Bilbok garai bateko final handien giroa berreskuratu zuen igandean. Altuna-Martijaren eta Laso-Imazen arteko finalak esperotako aurreikuspen guztiak gaituz zituzten, final estu, gogor, hunkigarri, luze eta epikoa izan baitzen, Miribillan bildutako pilotazale guztien gozamenerako. Zaletasuna sortzen duen partida izan zen, tentsio handikoa eta bihotzekoa emateko modukoa, pilotazaleak aulkietatik behin eta berriz altxarazi zituena. 22 eta 20 irabazita, Martijak binakako bigarren txapela jantzi zuen –aurrekoa 2020an lortu zuen Ezkurdiarekin–, eta Altunak hiru modalitateen trilogia osatzeko falta zitzaion txapela lortu zuen, binakakoa. 26 urterekin sei txapela ditu amezketarrak eta pilotari handien historian sartu da.

Festa ospakizunen biharamunak eta partidaren gogortasunaren ajeak batuta, astelehenean ezin ibili zeudela bildu ziren Martija eta Altuna Etxeberrin. Altunak koadrizepsean gainkarga zuela azaldu zuen. Martija maki zegoela zirudien, bikiak oraindik oso kargatuta zituelako, baina lortutako txapelak oinaze guztiak sendatzen dizkiola nabarmendu zuen. Etxarrengo jatetxean ospatu zuen txapela lortu izana, senitarte-koekin, kuadrillarekin eta herriarrekin, giro bikainean. "70 kide inguru bildu ginen, gustu-

**"BI TXAPELA IZATEA
EZ NUEN INOIZ
ESPEROKO.
SEKULAKOA IZAN DA"
JULEN MARTIJA**

ra afaldu genuen eta eta parranda luzatu zitzaigun. Gustura ibili ginen" nabarmendu zuen, irribarrez. Altunak Amezketako frontoian ospatu zuen txapela, senitarteko eta ezagunekin. 250 lagun guztira. "Parranda ederra egin genuen eta frontoian hainbeste jende ikusteak niri poz handia eman zidan".

ANALISIA Martija, sostengu

Parekotasuna eta gogortasuna izan ziren finalaren ezaugarri nagusiak. Takadaka jokatu zen partida, hasieran oso alde txikiarekin. Materialak bereziko garrantzia izan zuen, pilota adaketaekin etortzen baitziren boladak. Lehen zatian Altuna ez zen eroso ibili; amezketarra kateatuta zegoen, ezin askatu. "Niretako hau final oso garrantzitsua zen. Zazpi urte behar

izan ditut binakako finalera iristeko eta Julenekin batera binakako txapela irabazi nahi nuen. Askotan irabazi nahi horrek lotu egiten zaitu eta nik uste eragina izan zuela, hasieran ez bainuen nire mailarik onena eman. Zalantzekin jokatu nuen, estatiko, zurrun. Jokinek esaten zidan jokoan sartu beharra nuela, baina ez nengoen eroso" aitortu zuen amezketarrak. Lehen zati horretan Martijak eutsi zion bikoteari, defentsa lan ikaragarria eginez, eta Altunak meritua Martijari eman zion. "Berari esker irabazi dugu" zioen. Etxeberrikoaren korrikaldiak ikustekoak izan ziren: bederatzitik frontisera, eta berriro atzera. Etengabe.

Aldiz, tarte horretan Laso eta Imaz sendo zeuden. Lasok tanto ikusgarriak egin zituen –partidako jokalaririk onenaren saria jaso zuen, merezitakoa–, Imazen babesarekin. 11 eta 17 aurreratu ziren. Euren urrezko unea izan zen, euren zaleen eromenerako. Txapela oso gertu zuten, eta askok txapeldun ikusten zituzten. Eurak ere sinetsita zeuden. Baina Jokin Altuna ez da inoiz gutxietsi behar. Ezta Martija ere. Etxeberrikoak bota zioten ia guztia erantzun zuen eta bikotea sostengatu zuen ordua arte, eta, zorionez, une erabakigarri horretan behetik gora egin zuen Altunak. "Okarren geunden unean ibili naiz lasaigo" aitortu zuen. Materialak ere eragin handia izan zuen. "11 eta 17ra joan zirenean batera ibiltzen ez zen pilota batekin izan zen. Trapuak bezala geunden gu orduan, haien menpe. Erraz dominatzen gintuzten. Baina gure pilota hartu genuenean erosoago hasi nintzen jokatzeko, nahiz eta pilotak zeharo gaituzte egon, eta partida berriro parekatu zen" nabarmendu zuen Altunak.

Buelta eman

Une erabakigarri horretan Laso eta Imaz akatsak egiten hasi ziren, eta orduan finala irabazteko aukera zutela jabetu ziren Altuna eta Martija. "12. eta 13. tantoak egiterakoan finala ira-

**"TXAPELKETA HAU
JULENEKIN
IRABAZTEKO ILUSIOA
NUEN"
JOKIN ALTUNA**

bazteko itzaropena piztu zitzaigun eta bukaerara arte dena eman behar genuela argi genuen" azaldu zuen Altunak. Iritzi berekoa zen Martija. "Partida gogorra izan zen, bai fisikoki eta baita mentalki ere. Buruz oso indartsu egon ginen, uneoro partida irabazi ahal genuela pentsatzen eta elkarri animatzen. Horrek asko lagundu zigun, partida irabazteko gakoa izan zen" gaineratu zuen. Baita Lasoren eta Imazen akatsek ere. Partidak, nolabait, ihes egin zien Baikokoei. "Askotan aurretik zaudenean eta ikusten zuzenean arerioa badatorrela, ez da egoera erraza, eta final batean gehiago. Agian urduritzen zara eta akatsak etor daitezke. Jokin gusturago zegoen, ni neurrian, eta abantaila hartzea lortu genuen" nabarmendu zuen Martijak. "Ikusi genuenean beraieie ere kezka sartzen hasi zitzaie, horrek indar handia eman zigun. 16tik 21era bitarteko tantoetan sentitu nintzen hobekien. Uste dut eurak ere partidatik pixka bat atera zirela eta gehiago oparitu zutela" gaineratu zuen Altunak. Aspekoak, aldiz, ez ziren partidatik atera, kontzentratuta jarraitu zuten eta erremonatzea lortu zuten, balentria handia.

Izarrak ikustetik...

Altunak izan ezik, beste hiru pilotariek finalean medikuen laguntza behar izan zuten, partidaren gogortasunaren isla. 20 eta 17an Martija erori zenean susto ederra hartu zuen Bizkaia pilotalekuak. "Bi bikiak igo zitzaizkidan eta ez zitzaizkidan jaisten. Oinazea ikaragarrikoa zen. Bikiak nola edo ahala jaitsi, eta kantxara itzultzea, ahal zen moduan, hori zen buruan nuena. Txemaren masajearekin izarrak ikusi nituen, baina kantxara ateratzea lortu nuen. Azken tantoak oso gogorrak egin zitzaizkidan, baina Jokinek lagundu zidan, garaipena lortu genuen, ez dakit oso ongi nola (kar, kar...), eta oso pozik. Fisikoki lehertuta bukatu nuen. Oraindik ere bikiak oso kargatuta dauzkat. Badirudi maki nagoela, baina masajeekin osatuko naiz" adierazi zuen Martijak. Altunarendako Martijak lortutako 20. tantoa berezia izan zen. "Juleni esan nion tanto horrengatik irabaziko genuela txapela. Seguru nengoen. Eta hala izan zen".

Altunak ere fisikoki ukituta bukatu zuela aitortu zuen, eta jokatu dituen final guztietatik igandekoa "psikologikoki gogorrena" izan zela azpimarratu zuen, "izugarritzko poza" sortu diona. Horregatik, Binakako txapelak "sekulako zaporea" du berarendako. "Txapelketa hau Julenekin irabazteko ilusia nuen" zioen behin eta berriz.

... izarrak ukitzera

Argi geratu dena da Altunak eta Martijak tandem bikaina osatzen dutela. "Gustura jokatu dugu, eta harreman bikaina dugula agerikoa da. Une zailei aurre egiten ikasi dugu. Igandekoa egun oso berezia izan zen: zaleen animoak, giro bikaina, txapela... oroimenean betirako gordetzekoa. Txapelketa irabaztea ikaragarria izan da. Gainera nola irabazi dugun ikusita, are gehiago, sekulako partida izan delako, zaleendako bikaina. Horrek finalari beste balio bat eman dio, eta oso pozik nago. Bi txapela izatea ez nuen inoiz espero, baina egunero egiten ditudan entrenamendu gogorren sari bikaina dira. Orain lanean jarraituko dut, eta gehiago etortzen badira, ongi etorriak" azaldu zuen Martijak. Familia, lagunak eta neska laguna izan zituen gogoan Martijak, baina izeba bereziki, "une txar bat pasatzen ari delako. Guztia ongi joango da baina txapela berarendako da" nabarmendu zuen. Igandean

zerua ukitu zuen Altunarekin batera, podiumaren gorenean, izar distiratsuen artean.

Ongi errekueratzea, hori da bi pilotarien nahia. Altunak Buruz Burukoari ekingo dio berehala -formatu berriarekin gogorregia izango dela uste du amezketarrak-, eta Martijak, osatu bezain pronto ohiko entrenamenduei ekin nahi die. "Egunero gogor entrenatzen dut, ohiko martxan, beti nire mailarik onenean egoteko" azaldu zuen etxeberriarrak. Ostiralean jaialdia zuen Irurtzunen, Victorrekin batera, profesional gisa debutatuko duen Aaron Arbizuren eta Ezkurdiaren kontra. Argi zuen gaizki egonez gero ez zela arituko, "kantxara ongi atera behar baita". Asteazkenean partida jokatzeko moduan ez dagoe la adierazi zuen.

Bitartean, txapela lortu izanaz disfrutatuko du Etxeberrikoak, "txapelketa bat irabaztea oso zaila baita" dio bi txapela dituen 24 urteko arakildarrak. Berdin deritzo 26 urterekin sei txapela bildu dituen amezketarrak. "Txapelketa batetik bestera goaz jarraian, eta lortutakoaz gozatzea ez da erraza. Denbora pasa ahal baloratuko dugu gehiago" zioen. Elkarrekin berriro ariko ote ziren galdetuta, oso argi zuten. "Urtero Binakakoa elkarrekin jokatzeko segituan sinatuko genuke" erantzun zuten. Tandemak jarraipena izango al du? Nork daki.



Julen Martijak gogoz ospatu zuen garaipena. ASPE



Martijak ederki gozatu zuen lagunekin eta kuadrilakoekin.



Julen Martijak bigarren txapela ekarri du Etxeberri.



Maite Beregaña, urdinez. ETXAURI KROS

Maite Beregaña txapeldunorde Etxaurin

MENDI LASTERKETAK Uharte arakildarra Ordoñezen atzetik sailkatu zen. Adur Senar laugarren izan zen

Igandean Etxauriko krosa jokatu zen, 7 km labor baina gogor dituen lasterketa, Etxauriko Zaldualdea plazatik (422 m) Etxauriko portura (838) igotzea baita erronka, malda gogorretan. David Palomo gailundu zen (28:03), ederki sufritu zuela aitortuta. Adur Senar lakuntzarra podiumera igotzear egon zen, laugarren sailkatu baitzen (28:42). Emakumezkoetan Maria Ordoñez izan zen garaile (32:08), eta Maite Beregaña uharte arakildarra bigarren sailkatu zen (36:52).

Espainiako Trail Txapelketa Martxoaren 27an Pinarens de Lerin Traila (23 km) jokatu zen, Nafarroako Trail Txapelketa izan zena. Jesus Mari Alegria izan zen txapelduna (1:44:52). Eukeni Goikoetxea bosgarren sailkatu zen (1:49:08) eta Jabi Gasanz zazpigarren (1:56:42). Emakumezkoetan Ainara Alkuaz gailendu zen (2:04:44), eta Eneritz Karasatorre seigarren sailkatu zen (2:23:00). Lerinen egindako lan bikainari esker, maiatzaren 7an Bergan (Barcelona) jokatu den Federazio Autonomikoaren Arto Espainiako Trail Running Txapelketan aritzeko txartela lortu dute hiru sakandarrek, Goikoetxeak, Gasanzek eta Karasatorrek.

Aaron Arbizu vs Jose Zabaleta

Gaur, apirilak 8, ostirala, Aaron Arbizu Alberto etxarriarrak Aspeko atzelari gisa debutatuko du Eibarko promotorak Irurtzunen antolatutako jaialdian. Arbizuk Ezkurdia izango du bikote, eta Victor eta Zabaleta dituzte arerio. Hasiera batean Martija aritzekoa zen, baina etxeberriarra igandeko final gogorretik ez da behar bezala osatu eta Etxarrengo atzelariak hartuko du bere tokia. Sekulako jaialdiarekin debutatuko du oraindik ere profesional dela ezin sinetsi dagoen etxarriarrak.



Aaron Arbizu. DABID ARGINDAR-ASPE

Jaialdia zabaltzen duen partidaren Promozio Buruz Buruko atarikoak jokatu dute Elordik eta Salaberriak. Ildo honetan, aipatzekoa da Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarra ez dela Promozio Buruz Burukoan ariko, larunbatean Amurrión jokatu atarikoan 21 eta 22 galdu baitzuen Alberdiren kontra.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTELEHENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 8

SAKANA Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lanbidea hitzaldia. Besteak beste, Sakanako Garapen Agentziak eta Irurtzun eskualdeko gizarte zerbitzuetak mankomunitateak antolatuta. 10:00etatik 12:00etara, online.

ETXARRI ARANATZ Sortzen eskola festa.

Erraldoiak eta gaiteroak, ekitaldia, bazkaria, Etxarri kantuz, herri kirolak, Xaibor, auzatea, tarta eta opari zozketa, xake partidak eta eskoaz kanpokoetan egindako lanen erakusketa. 12:30etik aurrera, plazan.

ALTSASU Gazte agenda: Zer proposatzen diguzu?

18:00ean, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Udalbiltzaren Geuretik sortuak ekimena:

Ttanttaka teatroaren Sexberdinak antzezlan. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Uholdeak: X hau ez da okupatzen... programa. Bertso saioa: Sarai Robles, Idoia Granizo eta Alazne Untxalo

bertsolariak. Gai jartzaileak: Jone Rubio eta Usua Martinez. 19:00etan, Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

IRURTZUN Pirinioetako bidearen aurkezpena.

Iratxo Mendi Taldeak eta Pikuxarrek antolatuta. 19:30ean, Pikuxarreko plazan.

LARUNBATA 9

ALTSASU Konpost festa banaketa.

11:00etan, Txioxa ondoko konpostagailuan.

ARAKIL Txotx! Sagardotegi bazkaria Hernanin.

Arakilgo Udalak eta Pikuxarrek antolatuta. 12:00etan, autobusa herrietatik.

ALTSASU Gazte agenda: Pizzada.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

OLAZTI Beatriz Morales eta Agujetas Chicoren Flamenco sin sulfitos dantza ikuskizuna.

19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Hotel Flamingo ikuskizunaren emanaldia.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

OLAZTI Víctimas Club taldearen kontzertua.

23:30ean, Clinker jatetxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Código emperador gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 8: 19:00
Igandea 10: 19:30

El triunfo gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 14: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Apaiz kartzela film dokumentalaren emanaldia
Igandea 10: 19:30

La hija oscura zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 14: 19:00

IGANDEA 10

ALTSASU Elkartasun azoka: musika, jolasak eta gehiago.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak eta Sakana Harrera Haranak antolatuta. 11:00etatik 14:00etara, Iortia zabalgunean (euriarekin, frontoian).

OLAZTI Pinocchio familiarteko antzezlan.

17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Lehendakari gara Iker Galartzaren eta Zuhaitz Gurrutzagaren antzezlan euskaraz.

19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.



ALTSASU Uharte Zentroaren Uholdeak: X hau ez da okupatzen... erakusketa.

Apirilaren 28ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan 16:00etatik 20:30era. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

ASTELEHENA 11

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

12:00etan, Udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 12

ALTSASU Cuidados básicos de enfermería en fase avanzada de Alzheimer y otras demencias hitzaldia.

Nafarroako Alzheimerria eta bestelako dementzia duten pertsonen senideen elkarte. 17:00etan, Iortia kultur gunean.

Datorren astean, Guaixe asteakaria asteazkenean, apirilak 13, argitaratuko dugu. Eta ondoren, apirilaren 24era arte oporretan izanen gara.

DUELA 25 URTE...



Emakumeendako ikastaroak

Sexu heziketarako programa baten barruan, 35 eta 50 urte arteko emakumezko arbuzuarrei eskainitako hitzaldi zikloan honakoak izan zituzten aztergai: bakoitzak bere burua ezagutzera, menopausiaren inguruan egon daitezkeen aldaketak eta, orokorrean, bakoitza bere buruarekin gusturago sentitzeko jakin beharrekoak. Etxarri Aranazko osasun etxeko emakumeendako zerbitzuko sexologia izan zen saioak eskaini zituenak.

BELEIXE IRRATIAREN ELKARRIZKETA GUZTIAK:
WWW.GUAIXE.EUS

22. korrika

HIZ IKETAN

LARUNBATA 9

LAKUNTZA Zabalartek antolatutako mendi irteera familian Kobahandi ezagutzera. Gosaria egonen da. 09:30ean, plazatik.

LAKUNTZA Lakuntzan Auskiak-ek antolatutako Lakuntzako itxen izenak hitzaldia. Hizlaria: Jose Luis Erdozia. 18:00etan, kultur etxean.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Aste bukaeretan, adineko jendea zaintzeko eskeintzen naiz: Uztaila eta abuztu osoan ere ahalgo nuke. Izaskun dut izena, hauxe nire tfno zbkia. 653998035. Eskerrik asko.

IKASTAROA

Familientzako tailerrak: Osasun mentalaren sustapena seme alaben artean (Iurtzun eskualdeko Gizarte Zerbitzuek eta Uhartea Arakilgo Guraso elkarteak antolatuta). Uhartea Arakilgo udalerean burutuko da apirilaren 28an, maiatzaren 5ean eta 12an (ostegunetan), 17:00etatik 18:30era. Tailerrean parte hartzeko izena eman behar da apirilaren 25a baino lehen, ssbirurtzun.izabalaga@gmail.com helbidera idatziz edo 948 600 694 tfnora deituz.

LEHIAKETA

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 15. lehiaketa: 6 urtetik gorakoei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo direlarik, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 3an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3. zbkiko egoitzan edo erdialde.euskararenlagunak@gmail.com helbidean. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean. Sariak 2022eko maiatzaren 28an banatuko dira, Miranda de Argan izanen den "Euskararen eguna" ospakizunean. Irabazleei alde aurretik abisatuko zaie.

OHARRA

Elkartasun azokaren antolaketan parte hartu nahi duzu? Apirilaren 10ean Altsasuko Iortia plazan (edo Burunda pilotalekuan) egingo den azokan salmenta, sentisibilizazioa, jolasak, etab izango direnez Mankomunitateko Anitzartean Inmigratio zerbitzuetik jendea antolaketan parte hartzerantz animatu nahi dute, izena eman nahi baduzu 648 070 710 tfnora deitu edo anitzartean@gmail.com emaila-

ra. Beste mundu bat posible delako, parte hartu!
Auzolana Bakaikun: Bakaikuko Udalak apirilaren 9an auzolana egingen du. Iturriak konpondu eta txukunduko dituzte egun horretan. Izena emateko udalerekin pasatu edo www.bakaiku.eus web orriaren bidez egin.

Konposta eskuragai. Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbuzuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasatu behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

Orreagako guduaren omenezko monumentuaren aldeko ekimena: Euskaldunek frankoen armada garaitu zuen 778an. Orreaga fundazioak garaipen haren historia memoria berreskuratu nahi du. Horretarako Orreagan Pabli Aldunate eskultorearen "Populus Vasconiae" eskultura jarri nahi dute. Hura gin eta jartzeko daru bil keta egiten hasi dira. 40.000 euro jasa nahi dituzte maiatzaren 31rako. Diru ekarpenak ES57 3008 0190 6846 1964 5924 edo ES35 3 0 3 5 0 1 3 9 7 1 1390021185 kontu korronteetan egin daitezke. Txartelarekin ere ordaindu daiteke www.orreaga-monumentua.eus webgurenean bidez. Han dago ekimenari buruzko informazio guztia.

Olaztik Udan Euskaraz Kanpainaren izen emateko epea zabalik: D edo B ereduaren ikasten dauden eta 2017. urtean jaiotakoak eta LH 6. mailara arteko haurrei zuzendua. Beste ereduak taldeak osatzeko, gutxienez 7 haurrek eman behar dute izena. Kanpaina ekainaren 27tik uztailaren 21era izango da biak barne. Tarifa 35 euro haur bakoitzeko, bi anai-arreba edo gehiago dituzten familiek guztira 58 euro ordainduko dituzte. Ordainzeko salbuespenak, onartuak izateko irizpideak, kanpainaren araudia etab www.olazti.com web-orrian irakurri daiteke. Izena ematea eta or-

dinaketa 948 012 012 tfnora deituz egin behar da apirilaren 13ra arte.

Sakanako Mankomunitatearen Euskara zerbitzuko dirulaguntzak: Euskaltegiendako, UEUn ikastaroak egin dituztenedako, euskara hutsez udalerekin joan direndako, euskara ikasten daudenedako eta Errotuluak (dendetan etab) euskaraz jarri duten edo dirulaguntza deialdi ezberdin hauetan eskararak aurkezteko epea zabalik dago. Eskabide guztiak Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira. Ez dira posta elektronikoen bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

Kubarekin elkartasuna kanpaina berria: MESC (Kubarekin Elkartasuna Estatu mailako Mugimendua) en barruan dauden erakundeek abiatu duten "Tona elkartasun" kanpainaren helburua Kubara kontedoretan behar dituzten materialak bidaltzea du helburu. 2022ko otsailaren 7an 60 urte bete dira Kubaren aurka Blokeoa "legalki" hasi zela. Materiala erosi ahal izateko zure aportazioa egin nahi baduzu MESC-en barruan gertuen dugun Euskadi-Kuba erakundearen kontu korrontean egin dezakezu: ES35 3035 0134 43 1340059271 (Caja Laboral). "Campana toneladas" eta zure izen abizenak zehaztu diru sarrera egiten duzunean. Milesker.

Aralarko santutegi ondoan dagoen eraikina (Lakuntzetxe) zaharberitzeko proiektuan lagundu nahi duenak: ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortzen egitean zati bat bueltatuko diote.

Irurtzango konpartsa: Erraldoiak dantzatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.eus

JAIOTZAK

- **Danel Aiesa Lakuntza**, martxoaren 24an Etxarri Aranatzan
- **Ane Diaz de Garaio Ansotegi**, martxoaren 25ean Etxarri Aranatzan

EZKONTZAK

- **Javier Mendinueta Igoa eta Olaia Martiarena Razkin**, apirilaren 1ean Lakuntzan
- **Aitor Audikana Arrese eta Yuliet Portuondo Montalban**, apirilaren 2an Olaztin

HERIOTZAK


- **Juan Arregi Razkin**, apirilaren 5ean Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.




EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 8




Larunbata, 9



Igandea, 10



Astelehena, 11



ESKELA



Juan Arregui Razquin

(Silvestren Juanito)

(Lodosan hil zen, 2022ko apirilaren 5ean, 91 urte zituela)

—Goian bego—

Familiak beraiekin egon eta gogoratu diren guztien babesa eskertzen du

Lakuntzan, 2022ko apirilaren 6an

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

"Jendeak lan eszenikoan parte har dezake"

GHISLAINE VERANO DANTZARIA

Apirilaren 20an eta 21ean Bitartekaritza proiektu integrala deitutako mugimenduaren inguruko tailerra eskainiko du Etxarri Aranatz

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ

DNA. Nafarroako Dantza Garai-kidea arte programaren barruan, besteak beste, apirilaren 20an eta 21ean, Etxarri Aranatzko kultur etxean, Ghislaine Verano gidatutako Bitartekaritza proiektu integrala dantza ikastaroa izanen da, 10:30etik 12:00etara. *Gorputzaren soinuak* dantzariaren proiektuaren barruan ere instalazioa ikusteko aukera izanen da tailerra iraun bitartean eta apirilaren 22an, 18:00etatik 20:00etara.

Zertan datza Bitartekaritza proiektu integrala tailerra?

Teoria pixka bat eta praktika pixka bat lantzen diren tailerrak dira. Kasu honetan, nire lanean barneratzen dira.

Eta zertan datza zure lana?

Lengoaia eszeniko berriak lantzen ditut. Mugimenduaren arteak eta abar. Oraindik definitzen ari gara zer egiten dugun. Arauetatik atera gara, eta dantza eszeniko lan ohikoetatik atera gara. Bitartekaritza lan hau oinarritzen da orain arte topatu ditugun dantza lanetatik urruntzen diren proiektuetan jendeak zer aurkitu dezakeen eta zer ez, nolako izan ikusle eta abarretan.

Ikusleak aipatu dituzu, baina zer egingo dute tailerreko parte hartzaileak?

Bi zati planteatzen dira. Lehenengoan, normalagoa dela esango nuke: taldea murriztuagoa da eta teoria ematen da gehien bat. Helburua lengoaia berriak eta etortzen dena ulertzen da: zer den nire lana klase batean azalduta. Hurrengo klasean, ikusleak integratzen dugu emanaldi bat izango litzatekeen lan batean. Orduan, parte hartzaileak publiko gisa daude, baina batzuetan nahi badu nire lan eszeniko proposamenean parte har dezake. Beti pertsonen nahietara egokitzen gara, ez da inoiz pertsona



Ghislaine Vernano dantzaria. AITOR ORTIZ

bat ezer egitera behartzen. Beraz, egon zaitezke ikusle gisa edo lan horretan sar zaitezke. Esperientzian parte har dezakezu.

Bi eguneko tailerra da, ordu eta erdi saio bakoitza. Noraino irits daiteke? Zenbat barneratu zaitezke mundu horretan?

Proiektuaren atzean ordu asko daude. Tailerrean lehenengo zatian ginetik gabiltza, teoriaren pintzelada batzuk ematen ditugu. Beste pertsonen lana eta nire lanaren inguruko azalpenak ematen ditugu. Bigarren egunean horrelako proposamen bat izan daitekeenaren adibide bat bizi dute. Pieza bat izan daiteke, baina bertan barruan egon daitezkeen ideia bat ematen dizu. Azkenean, zentzu horretan nahiko osatua gelditzen da. Lengoaia guztiei buruz hitz egin nahiko bagenu askoz denbora gehiago beharko genuke.

"LENGOAIA ESZENIKO BERRIAK LANTZEN DITUT; MUGIMENDUAREN ARTEAK ETA ABAR"

Hamabost pertsonako taldeak izan behar dute. Baina nori zuzenduta dago?

Lehenengo eguneko saioan gehienez hamabost pertsonak parte har dezakete. Talde txikia izan behar du. Bigarren egunean sar daiteke jende gehiago; ikuskizun batera etorriko balira bezala. 16 urtetik gorakoendako jarri dugu, baina egia da gazteagoak ere etor daitezkeela. Oso txikiak ez, aspertu daitezkeelako. Baina dantzan eta mugimenduan interesa duten gazteek bai parte har dezakete. Banguardietan interesa dutenek, dantza garaikidean, asko lantzen dut meditazioa ere, beraz, yoga egiten duen jendeak edo meditazioan eta gauza izpiritualetan interesa dutenek... Gauza hauek gustatzen zaizkion jendea engantxatu daiteke. Eta, nola ez, dantza egitea gustatzen zaion jendeari eta gorputzarekin eta gorputzaren lanarekin konektatzea gustatzen zaion jendeari ere zuzenduta egon daiteke. Hori da bidea.

'Gorputzaren soinuak' deitzen da. Izenburuak aurrerapen bat egiten du?

Ni aspaldi ari naiz zentzumenekin lanean. Orduan, lantzea gel-

ditzen zitzaidan gauzetako bat soinuaren zentzumena zen. Ni soinuetaatik hasi, gorputzak egiten dituen soinuak, baina baita kanpo soinueta joan ere. Soinu horiek, bai gorputzekoak bai kanpokoak, nola jartzen diren harremanetan nire gorputzarekin. Gainezka egiten didan zerbait da; lilurazioa eta eromenaren artean nago. Dena hartu nahi dut, eta ez da posible. Soinuaren gaiak askorako ematen du. Gai oso zabala da, eta nik asko ikasi dut, orduan, informazio asko daukat. Baina nik gehienbat lantzen dut soinuek nola eragiten didaten eta nire gorputzak soinu horrekin zer egin behar duen. Nire gorputzaren barrenetik entzuten ditudanekin edo kanpotik entzuten ditudanekin. Hainbeste gauza dira... Nire gorputzaren mikrokosmosa agertzen

da kanpoko soinuekin. Bihotza-ren taupadak kanpoan islatzen dira... Kanpoko soinuak lantzen barrukoak ere lantzen ditut, eta alderantziz.

Apirilaren 20an, 21ean eta 22an izen bereko instalazioa egonen da ere kultur etxean. Zertan datza?

Nik dudak pieza bat erakusten da. Nire introspekzio lanarekin zerikusia du: zer naizen eta zer den mundua. Ikus-entzunezko instalazio bat da, dagoeneko sortua dagoeneko, eta jendea ikustera pasa daiteke. Errealitatearen gainean egina dago: errealitatea existitzen den edo ez, edo etengabe mugitzen den zerbait den. **Aurretik Etxarri Aranatz ezagutzen zenuen?**

Duela zenbait urte euskal dantza taldeari klaseak eman nizkion; ballet eta gorputz konzientzia. Haur talde batekin aritu nintzen.



BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Aste Santurako ez dakizula zer irakurri?

Últimos días en Berlín (Planeta 2021)

Agian ezaguna egingo zaizu 2021eko planeta sarian finalista geratu zelako. Idazlea Paloma Sánchez-Garnica da, Urdiaingo liburutegian, orain arte, idazle ezezaguna. Azala ikusi, eta Bigarren Mundu Gerrateko "beste" liburu bat dela pentsa dezakezu, baina, dena den, emaiouzu aukera bat, "engantxatuko" zaitu.

Yuri Santacruz da protagonista, San Petersburgotik ihesi Berlinera iritsiko dena. Errusiako iraultzatik ihesi Adolf Hitlerren izendatze eguna biziko du Berlinen. Maitasuna, injustizia, adiskidetasuna, muturreko bortizkeria, elkartasuna... ezagutuko ditu oso arin irakurtzen den elaberri historiko honetan.

Haize-lekuak (Alberdania 2020)

Honako hau Altsasun eta Idiazabalen dago girotua eta Ainhua Telleria dugu idazlea. Gerraostean baserrietik Altsasura neskame joandako 13 urteko gazte baten "heziketara" kontatu du,

samurtasunez, amonaren bizipenak oinarri.

"Aitortu gabeko heroien" historia jaso nahi izan du Telleria idazle idiazabaldarrak bere lehen eleberrian. Historiak alde batera utzitako pertsonaiak ekarri ditu lehen lerrora, uste baitu jende arruntak oso gauza interesgarriak eta gogorak bizi izan dituela; esaterako, gerra. Historiak alboratutako horien ikuspuntua du kontagai nobelak: emakumeak, herrian geratutakoak, neskameak, baserrietarrak...

Mikelak 13 urterekin jaioterria utzi eta Altsasura neskame joango da amak etxean aho bat arindu asmoz. Neskatoak 36ko gerrak gogor kolpatutako herria aurkituko du bertan, eta ohituta zegoenarekin konparatuz, bizimodu erabat ezberdina. Baserri ingurutik joana, herri handi bateko giroarekin egingo du topo, hizkuntza eta ohitura zeharo desberdinekin.

Bukatzeko, eta gure txikiei zuzenduta **KATTA** dugu azken aldian liburutegiko protagonista. Miren Agur Meabe dugu idazlea eta Lotura Films-ek sortu ditu ilustrazioak. 12 ipuinetan **KATTA** kategorria eta bere lagunak hainbat egoeratan ezagutzeko aukera izango duzue. Irakurtzen hasten direndako oso aproposa, letra larriz eta esaldi laburrez idatzia baitago.

Aste Santu ON!!



Elodi García Insausti idazlea eta Mari Jose Oraa Ezker, Saray elkarteko presidentea. ALTSASUKO LIBURUTEGIA

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2013ko abenduaren 7an Elodi García Insausti kazetari lazkaotarrari leuzemia diagnostikatu zioten. "Hor hasten da liburua, nahiz eta batzuetan atzera begiraten dudana ere, kontestualizatzeko". 2021ean *Imparable hasta la médula* liburu solidarioa kaleratu zuen, eta asteazkenean Altsasuko Iortia kultur gunean aurkeztu zuen Mari Jose Oraa Ezker Saray elkarteko presidentearekin batera. Biek haien gaixotasunen inguruan elkarrizketa izan zuten liburuaren aurkezpenean.

García oso nekatuta sentitzen zen, eta giharretako mina zuen. Medikarenera joan zen eta giharretako erlaxante bat eman zion. Baina ez zion ezer egin. Larrialditara joatea erabaki zuen. "Bertan gelditu behar nintzela esan zidaten". Analitikan ikusi zuten "odolean zerbait ez zebilela ondo, eta leuzemia izan zitekeela". *Shock* bat izan zela esan du kazetariak. "Hasieran akatsen bat egon zela pentsatu nahi nuen, gezurra zela, beste baten emaitzak zirela". Hurrengo egunean proba gehiago egin zizkioten, eta "baietz, leuzemia zela" esan zioten. Zuzenean isolamendu gela batera eraman zuten. "Dena oso azkar onartu beharra duzu. Bizitza normala egiten ari zara, larrialditara zoaz, eta ingresatuta gelditzen zara".

Aurretik leuzemia minbizi mota bat zela baino ez zekien, "eta joan naiz ikasten gauzak

Gelditzea aukera bat ez denean

Elodi García Insausti idazleak 'Imparable hasta la médula' liburuan leuzemia diagnostikatu ziotenetik sendatu arteko prozesu guztia kontatu du. Besteak beste, liburuarekin hezur muina ematearen ezjakintasunarekin apurtu nahi du

gertatzen ziren heinean". Isolamenduan zegoela berarekin bakarrik pertsona bat egon zitekeen, "eta orain Covid-arekin ezta hori". Senideak eta lagunak abisatu zituen, eta lagun guztiak agertu ziren bisitan, "baina esan zieten ezin zirela sartu. Baina nola da hori posible! esaten zuten". Bertan ezagutu zituen Garcia musukoak, gel hidroalkoholikoak eta abarrak. "Sartzen zen pertsona kirofanoa batera bezala sartzen zen". Gela horretan zegoela, ahizpak koaderno bat oparitu zion, eta bertan hasi zen egunean egiten zuena apun-

ISOLAMENDU GELAN LIBURUA SORTZEN HASI ZEN, "NAHIZ ETA MOMENTUAN EZ JAKIN"

tatzen, medikuek esaten ziotena, medikuei galdetu nahi ziona, kimioa noiz hartzen zuen, zer beste tratamendu hartzen zituen...

"Nik esaten dut osasuna galtzea dolu bat dela, eta dolu bat denez fase batzuk dauzka: ez sinistu horretatik, tristurara, haserrea, dena nahasten da... Onarpeneraino bide bat dago". Larrialditara igande batean joan zen, eta hurrengo egunean *Gaztela* Mantxako telebistan aurkeztu zuen magazinera lanera joan behar zen. "Gelditu behar nintzela esan zidatenean esan nien ezin nuela, hurrengo egunean lanera joan behar nintzela". Saioaren zuzendariari deitu zion esanez ingresatuta gelditu behar zela, eta "hasieran akats bat zela pentsatu nahi nuen arren", luzerako zirudiela esan zion zuzendariari. Behin leuzemia zuela konfirmatuta, "dena ongi sendatzeko bi

urte beharko nituela esan zidan medikuak. Pentsatu nuen ezingo nuela bi urtez lan egin gabe egon. Hori zen nire buruhaste handiena momentu horretan. Ez zara kontziente lanak ez duela ezertarako inporta, nire bizitza jokoan zegoen".

Koaderno

Isolamendu horretan, beraz, liburua izango zena ekoizten hasi zen "nahiz eta nik momentu horretan ez jakin". Liburua idaztea "terapia" bat izan zela esan du idazleak. Liburua idaztearen idaia 2015ean sortu zitzaion. Garai horretan

HIRU HELBURU DITU: ESKERTZA, IKERKETA GORAIPATZEA ETA HEZUR MUINA EMATEA ARGITZEA

euskaraz idazten zuen, baina oso larri egon zen. ZIUen lau alditan egon zen eta gurasoei esan zieten ez zela bizirik aterako. Indartsuago sentitu zenean, gaztelaniaz idazten hasi zen liburu solidario bat sortzeko ideia dagoeneko egi bihurtu zelako. "Josep Carreras fundazioarekin egin ahal izateko eta baita nire medikuek eta abarrek ulertzea nahi nuelako". Pandemiaren konfinamendua "opari bat" izan zen Garcia rendako, liburua idazteko baliatu zuelako.

Imparable hasta la médula deitzen da liburua, eta izenburuak dioen bezala, geldiezia izan da: "Denek esan didate oso gaixo ona izan naizela". Leuzemia zuela onartu zuenetik, "energia guztia" prozesu guztia "ahalik eta hobere" eramaten jarri zuen. "Oso kontziente nintzen horrela nire ondoan nituenak laguntzen nituela, eta horrela haiek ere ni hobe laguntzen ninduten". Oso larri egotera iritsi zen arte itxaropena mantendu zuen, eta orduan ere "ahal izan dudana guztia egin dut, bakean joan naiteke" pentsatu zuen. "Intentsitate handiarekin bizi duzu guztia; ez dakizulako hurrengo egunean esnatuko zaren edo ez. Hori da errealitatea".

Liburuak hiru helburu nagusi ditu: "Eskerrak emateko modu bat zen ez nekielako nola egin. Ez bakarrik inguruko jendeari, Alemaniako hezur muin emalea eskertzeko modu bat da ere". Baita Josep Carreras fundazioa eskertzeko modu bat ere bada liburua. Fundazioak 1991. urtean hezur muinen erregistroa sortu zuen, mundu osoko erregistroekin bat egiten duena, eta ikerketa eta laguntza lan handia egiten du. "Ikerketaren aldeko" aldarrria egin nahi izan du kazetariak, baita hezur muinen inguruan dagoen ezjakintasuna argitu nahi izan du ere. Orain, hezur muina ematearen inguruan hitzaldiak ematen dabil.

Josep Carrerasesek 1980ko hamarkadan Garcia ren leuzemia mota berdina izan zuen, eta orduan fundazioa "ezerezetik" sortu zuen. "Bera izan da ordutik etorri diren gaixoen aita, aitona, lehengusua...". 2018an tenorearekin elkarrizketa bat izateko aukera izan zuen, eta liburuaren hitzaurrea fundazioak egitea nahi zuela esan zuenean, "Josep Carrerasi esango diogu". "Oso pozik nago". Liburua edozein liburudendatan eta Interneten eros daiteke, eta irabazi guztiak fundazioarendako dira.

"Nafarroa ordezkatu arte ez naiz geldituko"

Ekiñe Fernandez Claverrek duela gutxi egindako 2021eko Miss Grand Navarra lehiaketan parte hartu du. Noizbait edertasun lehiaketa batean "koroa" lortzea da bere ametsa. 'Miss'-en mundua zertxobait aldatu dela dio altsasuarrak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nola parte hartu zenuen Miss Grand Navarran?

Txikitatik asko gustatu izan zait argazkilaritzaren mundua eta kameraren aurrean jartzea. Iruñeko DejaVú Models agentzian izena eman nuen, eta agentziako neskak esan zidan Nafarroan sariketa hori antolatzen zela. Zer egin behar zen pixka bat gainera azaldu zidaten, eta oso ongi zer egin behar zen jakin gabe, izena eman nuen. Itsuan joan nintzen. Eguna iritsi zenean bizitzeko esperientzia polita zela ikusi nuen.

2 Zer baldintza bete behar ziren?

1,61 metro baino gehiagoko altuera eta 16 urte baino gehiago izatea eskatzen zuten. Ez dute ezer gehiago eskatzen. Gero gala soineko bat izan behar zenuen,



Ekiñe Fernandez Claver altsasuarrak Miss Grand Navarra lehiaketan. UTZITAKOIA

eta hamar zentimetroko takoidun zapatak. Harritu ninduen lehen eskatzen zutelako 90-60-90 edo neurri jakin batzuk izatea, eta orain mundu hau aldatu da. Niri behitatz ez zidaten ezer gehiago eskatu, eta mota guztietako gorputzak zeuden.

3 Zure lehenengo modelo lana izan da?

Ez, hiru urte daramatzat mundu honetan; 15 urte nituenetik. Denda txikietarako zenbait lan egin ditut, katalogoak eta horrelakoak. Miss-en munduan bai izan da lehenengo aldia, eta errepikatuko dut.

4 Nola izan zen agentzian sartzea?

Errealitate bainu bat izan zen. Erraza izango zela uste nuen, agian altueragatik zerbait esango zidatela, 1,65 metro luze naitzela, mundu horretarako gutxi, baina iritsi nintzenean neskak esan zidan ez nuela altuera nahikorik, ez nuela bestea... Amak aukera bat emateko esan zidan, eta bertan antolatzen zuten modelo ikastaro bat egin nuen. Gustatu zitzaidan eta haien gustuko izan nintzen. Agian pasarela egiteko ez, 1,71 metrokoa izatea eskatzen dutelako. Pasareletan ez da hainbeste aldatu. Pertxa bat zara. Gero Madrileko agentzia batean ere sartu nintzen.

5 Nola prestatu zara 'Miss' lehiaketarako?

Aurten dena oso azkarra izan da 2021eko edizioa izan delako. Bi egunetan egin genuen: larunbatean entsegu azkar bat eta igandean gala orokorra izan zen. Takoieta eta pasarelan ongi ibiltzeko aholku pare bat, argazki ofizialak egin, eta gutxi gehiago. Baina dena oso ongi ateratu zen. Gainera, lehiakortasun handia zegoen. Gure artean ez zen gaitzespenik ez hitz txarrik egon. Harritu ninduen, holakoetan lehiakortasun handia egoten delako, eta gaiztoak izan gaitezkeelako.

6 Esperientzia ona izan da, beraz.

Bai. Nik gomendatzen dut. Asteburu horretan neska horiekin ia lagunekin baino harreman gehiago egin dut. Oso bizia da.

7 Zer egin behar zenuen?

Hamahiru neska parte hartu genuen. Bi pasarela mota

zeuden: bainujantziarena eta gala soinekoarena. Gala dantza batekin ireki genuen, eta gero banaka deitzen ziguten gure barrutiaren izenarekin, nire kasuan Altsasun, eta desfileatu behar genuen. Gala soinekoarekin diskurtso bat egin behar izan genuen, nire kasuan gerrari buruz. Gero Top-6-a aukeratu zuten, haietako bat Instagram bidez aukeratu-takoa eta beste bostak epamahiak aukeratu-takoa. Finalistei galdera batzuk egin zizkieten eta oratoria hobereana zuenak irabazten zuten.

8 Finalista izan zinen?

Ez. Soinekoarekin arazo bat izan nuen, askoz luzeagoa egin zidaten, baina ikasi nuen eta urrian Miss Grand Navarra 2022 egingo da, eta prest egongo naiz.

9 Nola lortu zenuen soinekoa?

Erositakoa da; neurriera egin da. Hemen asko kobratzen zidaten, eta Martak, antolakuntzako neska batek, oso maitakorra dena, esan zidan aurreko urteko lehiaketan soinekoak egin zituen neska bat ezagutzen zuela eta 500 eurotan soineko bat egin zezakeela. Oso denbora gutxi nukan, gainera. Nire amak eta biok neurriari hartu genituen, eta ez dakit nola hartu genituen, baina luzeegia zen. Desfilean zapaltzen nuen. Beste bati takoia hautsi zitzaion, beste bati titia ateratu... Barregarria izan zen.

10 Zer espero duzu etorkizunetarako?

Nik esan dut: Koroa iritsi arte, ez naiz geldituko. Nafarroa ordezkatu nahi dut. Miss izateak ate asko irekitzen dizkizu modelajearen munduan. Aurreko urtean Miss Grand Nafarroa izandakoa nirekin hasi zen DejaVun, eta hutsetik Louis Vuittonerako desfiletzera iritsi da. Miss izateagatik.

11 Mundu oso gogorra omen da.

Esaterako, Miss Grand Navarra irabazi ondoren, hilabete bat Kanarietara joan behar zara Espainiako lehiaketetarako prestatzeko eta egunero 05:00etan jaiki behar zara prestatzen hasteko. 1:00etan inguru bukatzeko, gauean. Egun osoa takoiekin; ekimen bat, argazki saioak, hemendik hona... Galaren bukaeran bakarrik pentsatzen nuen ea noiz jaitsi ahalko nintzen hortik.

**ITZULPENGINTZA
ZERBITZUA
EZAGUTZEN AL
DUZU?**

Euskarara edo euskaratik itzuli nahi duzun testu horrekin lagunduko dizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEÑUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f o
619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

